



# **GIZARTE-AURREIKUSPEN OSAGARRIARI BURUZKO GOGOETA EUSKADIN.**



# AURKIBIDEA

## ORRIALDEAK

1- Euskadiko gizarte-aurreikuspen osagarriaren egungo egoera. Esparru arauemailea.	2
1.1 Euskadiko gizarte-aurreikuspen osagarriaren magnitude nagusiak.	
1.2 Esparru juridikoa	2
1.3 Zergen arloko esparrua	18
1.4 Euskal familien finantza-egoerarako hurbilketa	22
1.5 EAEko Administrazio Publikoen ahalegina	27
1.6 Gizarte-aurreikuspen osagarriaren sarketa-maila	34
	39
2- Gizarte-aurreikuspen osagarria Euskadin etorkizunean. Aurrera begirako azterketa.	43
2.1 Demografia	43
2.2 Lan-merkatua Euskadin hurrengo hamarkadetan	50
2.3 Pentsio publikoen erreforma Estatuan	57
2.4 Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsa	68
3- Nazioarteko esperientziak.	72
4- Diagnosiaren ondorio nagusiak.	76

## 1. EUSKADIKO GIZARTE-AURREIKUSPEN OSAGARRIAREN EGUNGO EGOERA ETA ARAUZKO ESPARRUA

### 1.1. EUSKADIKO GIZARTE-AURREIKUSPEN OSAGARRIAREN MAGNITUDE NAGUSIAK.

#### 1.1.1. BGAE kopurua, modalitatearen arabera. 2015. urtea

2015ean, Euskadin 174 BGAE zeuden. Horietatik 82k erretirorako prestazioak eta Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri direnak ematen dituzte, eta gainerako 92k bestelako arriskuak estaltzen dituzte, hala nola suteak, ehorzketak, osasun-laguntza eta beste batzuk.

#### 1. koadroa: BGAE kopurua, modalitatearen arabera. 2015. urtea

MODALITATEA	Erakunde kopurua	%/ Guztira
<b>Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak</b>	82	% 47,13
Elkartua	3	% 1,72
Enplegu ez lehentasunezkoa	43	% 24,71
Banakakoa	34	% 19,54
Mistoak	2	% 1,15
<b>Gainerakoak</b>	92	% 52,87
Heriotzak	35	% 20,11
Osasun-laguntza	2	% 1,15
Suteak	40	% 22,99
Federazioa	1	% 0,57
Bestelakoak	14	% 8,05
<b>GUZTIRA</b>	174	% 100,00

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

1. koadroan "Gainerakoak" epigrafearekin multzokatzen diren 92 BGAEak dimentsio oso urriko erakundeak dira, 2. koadroan agerian geratzen denez.

## 2. koadroa: Gizarte Segurantzarako prestazio osagarriak ematen ez dituen BGAE kopurua.

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Balantze-zifra	%/ Guztira
<b>Gainerakoak</b>	92	11.046.189,22	% 0,05
Heriotzak	35	4.385.327,00	% 0,02
Osasun-laguntza	2	778.640,00	% 0,00
Suteak	40	3.780.947,75	% 0,02
Federazioa	1	483.017,00	% 0,00
Bestelakoak	14	1.618.257,47	% 0,01

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

Bere balantze-zifraren portzentajea, BGAE guztien balantze-zifraren guztizkoarekin alderatuz, huskeria da, eta, gainera, arrisku jakin batzuk estaltzen dituzte; ez dute inolaz ere pentsioen sistema publikorako pentsio osagarrien izaera. Hots, BGAE horiek ez dira oro har bigarren edo hirugarren habe modura izendatzen denaren tresnak egituratzen dituzten erakundeak.

Horrenbestez, dokumentu honetan Gizarte Segurantzarako prestazio osagarriak ematen dituzten 82 BGAE horietaz arituko gara (ikus 1. koadroa); izan ere, gainerakoek ez dute interesik Euskadiko aurreikuspen osagarriaren diagnosi bat egiteko, azken hori sistema publikorako osagarriak diren pentsio-sistemak (funtsean, erretirokoak) egituratzen dituzten erkidegoko erakundeen multzoa ulertuta.

Enpleguko 43 BGAEak hartuz, 39k jardute-eremu modura enpresa duten aurreikuspen-planak hartzen dituzte, eta 4 arlokoak dira; izan ere, horien aurreikuspen-planek enpresa multzo bat hartzen dute (BGAE bat, Lagun Aro, Mondragón Korporaziokoak diren enpresa kooperatibentzat; beste bat, Geroa, Gipuzkoako probintziako zenbait hitzarmen kolektibo hartzen dituzten haientzat; eta bi BGAE, sektore publikoko langileentzat: horietako bat, Itzarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileentzat, eta bestea, Elkarkidetz, Foru eta Tokiko Administrazio langileentzat).

### 3. koadroa: BGAE kopuruaren bilakaera.

	4T 12	4T 13	± Δ %	4T 14	± Δ %	4T 15	± Δ %
<b><u>Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak</u></b>	<b>92</b>	<b>85</b>	<b>-% 7,61</b>	<b>83</b>	<b>-% 2,35</b>	<b>82</b>	<b>-% 1,20</b>
Elkartua	6	4	-% 33,33	3	-% 25,00	3	% 0,00
Enplegu ez lehentasunezkoa	41	41	% 0,00	42	% 2,44	43	% 2,38
Banakakoa	40	38	-% 5,00	35	-% 7,89	34	-% 2,86
Mistoak	5	2	-% 60,00	3	% 50,00	2	-% 33,33

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planak dituen BGAE kopurua murriztu egin da 2012-2015eko epealdian (ikus 3. koadroa). Finantza alorrean gertatu den fusio-prozesuak erakunde horietako bazkide sustatzaileek bultzatutako BGAEen fusio-prozesu baten antzekoa eragin du.

#### 1.1.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantzea.

4. koadroan, magnitudea modalitatearen arabera banakatuta agertzen da.

### 4. koadroa: Aurreikuspen-planak dituzten 2015eko ekitaldiko BGAEen balantze-zifrak

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Balantze-zifra	%/ Guztira
<b><u>Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak</u></b>	<b>82</b>	<b>24.177.371.863,17</b>	<b>% 100,00</b>
Elkartua	3	34.696.736,31	% 0,14
Enplegu ez lehentasunezkoa	43	12.634.247.441,25	% 52,26
Banakakoa	34	11.395.986.874,89	% 47,13
Mistoak	2	112.440.810,72	% 0,47

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planak dituen BGAE baten batez besteko balantze-zifra 295 milioi eurokoa zen 2015ean. Banakako BGAEen kasuan, batez besteko balantze-zifra 335 milioi eurokoa zen, eta, enplegurakoen kasuan, 294 milioi eurokoa. Banakako BGAEak enplegukoekin alderatuz bazkide kopuru bikoitza izan arren, batez besteko balantzea oso antzekoa da.

Magnitudeen bilakaera 5. koadroan agertzen da.

## 5. koadroa: Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantze-zifraren bilakaera.

4T 2012	4T 2013	± Δ %	4T 2014	± Δ %	4T 2015	± Δ %
21.078.714.692,25	22.531.310.354,45	% 6,89	23.684.329.253,55	% 5,12	24.177.371.863,17	% 2,08

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

2015eko ekitaldian, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantzea 493 milioi euro hazi zen.

Kontuan izanik ekarpenekin ingresatutakoaren eta BGAEek beren aurreikuspen-planen bidez prestazio eta erreskateen ondorioz ordaindutakoaren arteko aldea ekitaldi horretan -172,8 milioi eurokoa izan zela, izandako igoera inbertsioen errendimenduari so ulertzen da.

### 1.1.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen elkartuak.

6. eta 7. koadroetan, elkartuak modalitatearen arabera erakusten dira, eta 2011tik izan duten bilakaera ere erakusten da.

## 6. koadroa: Erakundeak eta elkartuak 2015eko ekitaldian

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Bazkideak, guztira	%/ Guztira
<b>Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak</b>	82	1.157.425	% 100,00
<b>Elkartua</b>	3	2.449	% 0,21
<b>Enplegu ez lehentasunezkoa</b>	43	446.336	% 38,56
<b>Banakakoa</b>	34	699.709	% 60,45
<b>Mistoak</b>	2	8.931	% 0,77

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

## 7. koadroa: Elkartuen kopuruaren bilakaera

	4T 2012	4T 2013	± Δ %	4T 2014	± Δ %	4T 2015	± Δ %
GIZONEZKO BAZKIDEAK	703.716	670.598	-% 4,71	662.482	-% 1,21	653.497	-% 1,36
EMAKUMEZKO BAZKIDEAK	530.298	510.221	-% 3,79	509.546	-% 0,13	503.928	-% 1,10
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.234.014</b>	<b>1.180.819</b>	<b>-% 4,31</b>	<b>1.172.028</b>	<b>-% 0,74</b>	<b>1.157.425</b>	<b>-% 1,25</b>

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

Kontuan izan behar da agertzen diren datuek aurreikuspen-planak dituzten BGAE guztietan dauden bazkide guztiak adierazten dituztela, pertsona bat plan bakarrean zein plan ugaritan (edo BGAE ugaritan) egon. Horri dagokionez, azken hiru ekitaldietan elkartu kopuruan izandako beherakada, neurri txiki batean bada ere, epealdi berean erakunde indibidualak integratzeko erregistratutako prozesuen ondorio logiko modura azal daiteke, zeinak aldi berean planak integratzea ekarri baitu berekin.

#### 1.1.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenak eta prestazioak.

#### 8. koadroa: 2015eko ekitaldiko ekarpenak eta prestazioak

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Ekarpenen zenbatekoa	%/ Guztira	Prestazioen zenbatekoa	%/ Guztira
<b>Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak</b>	82	656.382.118,13	% 100,00	624.857.151,44	% 100,00
<b>Elkartua</b>	3	1.012.697,88	% 0,15	583.879,51	% 0,09
<b>Enplegu ez lehentasunezkoa</b>	43	277.272.123,97	% 42,24	395.059.156,20	% 63,22
<b>Banakakoa</b>	34	372.697.611,36	% 56,78	226.344.825,58	% 36,22
<b>Mistoak</b>	2	5.399.684,92	% 0,82	2.869.290,15	% 0,46

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

8. koadroan, aurreikuspen-planak dituzten BGAEetarako, erretiroarekin lotutako gertakarietarako egindako ekarpenak eta prestazioak jasotzen dira, eta baita heriotza, mendekotasuna, ezintasuna, iraupen luzeko langabezia edo gaixotasun larriarekin lotutakoak ere, hots, aurreikuspen-planen bidez eman daitezkeen prestazioak. Horrenbestez, beste zenbait gizarte-prestazio (esate baterako, aldi baterako ezintasunerakoa, enplegurako laguntza eta osasun arloko zenbait prestazio) emateko egindako ekarpenak eta prestazioak, enplegurako BGAE batzuek egiten dituztenak ez dira kontuan hartu. Prestazio horiek ez datoz bat bigarren edo hirugarren habearen kontzeptuarekin.

Halaber, erreskateak ez dira islatzen; izan ere, 10 urtetik gorako antzinasuna duten ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoen aurreiazko ordainketak ez dira prestazioak.



## 9. koadroa: Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpen eta prestazioen bilakaera.

	4T 2012	4T 2013	± Δ %	4T 2014	± Δ %	4T 2015	± Δ %
EKARPENAK	873.118.528,44	844.681.265,34	-% 3,26	671.357.467,83	-% 20,52	656.382.118,13	-% 2,23
PRESTAZIOAK	590.692.528,62	716.794.437,84	% 21,35	626.618.632,32	-% 12,58	624.857.151,44	-% 0,28
<b>ALDEA</b>	<b>282.425.999,82</b>	<b>127.886.827,50</b>	<b>-% 54,72</b>	<b>44.738.835,51</b>	<b>-% 65,02</b>	<b>31.524.966,69</b>	<b>-% 29,54</b>

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

9. koadroan, ez dira 10 urte ondorengo erreskateak islatzen, ez direlako gizarte-prestazioak; halaber, taulan ez dira enpleguaren modalitateko BGAEen gizarte-prestazio jakin batzuk jasotzen, ez direlako erretiroarekin lotutako prestazioak.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenen ondoriozko diru-sarrerak % 2,23 jaitsi ziren 2015ean. Ekarpenen bolumenaren beherakadak joera negatibo hori mantentzen du 2012-2015eko epealdian, epealdi horretan beherakada orokorra % 25ekoa izanik.

Haatik, aldagai horren portaera, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen modalitatea kontuan hartuz, ez da homoginoa, 10. koadroan ikus daitekeen moduan.

## 10. koadroa: Ekarpenen bilakaera modalitatearen arabera

	4T 12	4T 13	± Δ %	4T 14	± Δ %	4T 15	± Δ %
Ekarpenak, guztira	873.118.528,44	844.681.265,34	-% 3,26	671.357.467,83	-% 20,52	656.382.118,13	-% 2,23
Enplegua	287.640.391,60	269.232.065,20	-% 6,40	273.098.452,32	% 1,44	277.272.123,97	% 1,53
Banakakoa	560.899.175,74	563.228.503,75	% 0,42	390.438.448,89	-% 30,68	372.697.611,36	-% 4,54
Elkartuak	3.413.259,64	3.149.525,00	-% 7,73	1.048.750,96	-% 66,70	1.012.697,88	-% 3,44
Mistoak	21.165.701,46	9.071.171,39	-% 57,14	6.771.815,66	-% 25,35	5.399.684,92	-% 20,26

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

Erakunde elkartuak eta mistoak alde batera utzita beren dimentsio apala dela medio, azterketak enplegurako erakundeak eta banakakoak ditu ardatz.

Ekarpenen beherakada orokorra 2015ean leundu egin da 2014ko datuekin alderatuz, aurreko urtean gertatutakoa kontuan hartuz: % 2,23ko beherakada izan da. Horri dagokionez, adierazi behar da aurreko ekitaldian, 2014an, banakako modalitatean ekarpenen jaitsiera ia % 31koa izan zela, gehienbat arlo fiskaletik so kengarriak ziren ekarpenen zenbatekoen mugen jaitsieragatik eta Konstituzio Auzitegiaren 2014ko ekainaren 12ko 97/2014 Epaiak erreskate-eskubidean izandako eraginagatik (ekarpenen jaitsiera oso nabaria izan zen 2014ko laugarren hiruhilekoan aurreko urteko epealdi berarekin alderatuz). Haatik, era berean, 2012. urtetik ekarpenen beherakada bat ikus daiteke, herritarrek aurrezteko duten ahalmena mugatu zuen ekonomia-krisiak eragindakoa izan daitekeena.

Bestalde, enpleguaren modalitatean 2011. urtearekin alderatuz 2012. urtean izandako beherakada sektore publikoko enpleguko BGAEen bazkide babesleen ekarpenik ezak eragin zuen, batez ere.

#### 1.1.5. Erreskateak aurreikuspen-planak dituzten BGAEetan.

#### 11. koadroa: Erreskateak 2015eko ekitaldian

	BGAE elkartuak	%	Enpleguko BGAEak	%	Banakako BGAEak	%	BGAE mistoak	%	BGAEak, guztira
Erreskate kopurua	16	% 0,1	180	% 0,6	30.881	% 98,4	299	% 1	<b>31.376</b>
Erreskateen zenbatekoa	89.652,91	% 0,04	3.383.680,13	% 1,66	198.030.706,92	% 96,9	2.858.954,32	% 1,4	<b>204.362.994,28</b>

Iturria: Finantza Politikaren eta Erakunde Baliabideen Zuzendaritza.

#### 12. koadroa: Erreskateen zenbatekoaren bilakaera (eurotan)

	4T 12	4T 13	± Δ %	4T 14	± Δ %	4T 15	± Δ %
<b>Erreskateak</b>	282.118.233,94	302.219.320,93	% 7,13	221.536.300,32	-% 26,70	204.362.994,28	-% 7,75

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

la erreskate guztiak, hala kopuruari (% 98,4) dagokionez nola zenbatekoari (% 96,9) dagokionez, aurreikuspen-plan indibidualetan egiten dira. (Ikus 11. taula).

Prestazioen bat sortu aurretik metatutako eskubideak osorik edo zati batean itzultzeagatik sistematik ateratako guztizko zenbatekoa 204 milioi euro izan zen 2015ean. BGAE indibidualen kasuan, urteko ordainketa guztien zati oso handi bat da. Berez, 2015ean erreskateen ondorioz ordaindutakoa prestazioetan ordaindutakoaren oso antzekoa izan zen (226 milioi). Erreskate bidez 2015ean alde aurretik itzultitako dirua BGAE indibidualen kasuan, gutxi gorabehera, haien ondarearen % 2 izan zen, egindako ekarpenen % 55 eta aurreikuspen-planetan estalitako gertakariak jazotzearen ondorioz prestazioetan ordaindutakoaren % 90.

Prestazio kopurua (osoak eta partzialak) 31.376koa izan zen 2015ean, eta horien batez besteko zenbatekoa, urte berean, 6.513 eurokoa.

Azkenik, ekarpenak, prestazioak eta erreskateak aldi berean aztertzen badira, adierazi behar da aurreikuspen-planetan ekarpenekin bildutakoaren eta ordaindutako prestazioen eta egindako erreskateen baturaren arteko aldeak saldo negatiboa ematen duela 2013-2015 bitartean, 170 milioi euro baino gehiagokoa aipatutako urte bakoitzean, funtsean ekarpenen beherakadak eraginda, hala BGAE indibidualetan nola enpleguetan, eta baita aurretiaz adierazitako arrazoiek eraginda ere.

### 13. koadroa: Ekarpenen, prestazioen eta erreskateen bilakaera (eurotan)

	4T 2012	4T 2013	± Δ %	4T 2014	± Δ %	4T 2015	± Δ %
Ekarpenak (1)	873.118.528,44	844.681.265,34	-% 3,26	671.357.467,83	-% 20,52	656.382.118,13	-% 2,23
Prestazioak (2)	590.692.528,62	716.794.437,84	% 21,35	626.618.632,32	-% 12,58	624.857.151,44	-% 0,28
Erreskateak (3)	282.118.233,94	302.219.320,93	% 7,13	221.536.300,32	-% 26,70	204.362.994,28	-% 7,75
<b>Aldea (1)-(2)-(3)</b>	<b>307.765,88</b>	<b>-174.332.493,43</b>	<b>-% 56744,52</b>	<b>-176.797.464,81</b>	<b>% 1,41</b>	<b>-172.838.027,59</b>	<b>-% 2,24</b>

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

Horri dagokionez, esan dezakegu BGAEak estaltzen duen kontingentziaren batean erori baino lehen eskubide ekonomikoak erabiltzen dituzten pertsonen kopurua adierazle ona dela sistemaren aurreikuspen-helburua zein neurritan betetzen ez den ikusteko eta nola beste helburu batzuekin – adibidez, finantzei eta zergei lotutako helburuekin– erabiltzen den ikusteko. Haatik, datuetatik ondorioztatzen denez, erreskateen zenbatekoa modu nabarian murriztu da 2013. urtetik. Hala, beherakada horrek 2015ean aurreikuspen-plan indibidualen ondarearen % 2 inguru islatzen du.

#### 1.1.6. Tamaina aurreikuspen-planak dituzten BGAEetako pertsona elkartuen arabera.

2015ean, aurreikuspen-planak dituen BGAE bakoitzeko bazkideen batezbestekoa 14.115 bazkidekoa zen; 20.580 bazkidekoa BGAE indibidualen kasuan, 10.380koa enpleguko kasuan, 816koa elkartuetan eta 4.466koa mistoen kasuan. BGAE indibidualen pertsona kopurua enpleguko kopuruaren bikoitza da ia.

Baina nahiko handiak diren neurri horiek “minifundismo” handia ezkututzen dute BGAEen kolektiboan, batez ere enpleguko BGAEen artean. Enpleguko BGAE gehienek, % 65k, 1.000 bazkide baino gutxiago dituzte, eta 5 erakundek bakarrik dituzte 5.000 bazkide baino gehiago (ikus 14. koadroa). Indibidualen artean tamainaren alde hori ez da hain larria; izan ere, BGAE indibidualen % 35ek bakarrik dituzte 1.000 bazkide baino gutxiago, eta % 18ra iristen dira 25.000 baino gehiago dituztenak.

#### 14. koadroa: Erakundeen tamaina bazkide kopuruaren arabera

Bazkide kopurua	Enpleguko BGAEak		Banakako BGAEak	BGAE elkartuak	BGAE mistoak	Guztira
	Sektorekoak	Enpresa				
< 250		12	12		1	21
250-1.000		15	15	1		22
1.001-5.000		10	10	1	1	22
5.001-25.000		1	1		1	8
> 25.000	4	0	4			10
<b>Guztira</b>	4	38	42	2	3	83

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

## 15. koadroa: Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen tamaina, haien ondarearen arabera

Ondarea MM	Enplegua		Banakakoak	Elkartuak	Mistoak	Guztira	
	Sektorekoak	Enpresa	Enpleguak guztira				
< 10		14	14	10	1	1	26
10-150		19	19	15	2	1	37
150-300		3	3	3			6
> 300	4	3	7	6			13
<b>Guztira</b>	4	39	43	34	3	2	82

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

Tamaina bazkide kopuruaren arabera aztertu dugunean bezala, BGAEen ondarea aztertzen dugunean ere aipatutako minifundismoa aurkitzen dugu: tamaina txikiko erakunde askok, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ia % 88k, batezbestekoaren azpiko ondarea dute, eta tamaina handiko gutxi daude. Eta berdin gertatzen da enpleguko BGAE nahiz indibidualetan. BGAE guztien % 12,2k (25.000 bazkide baino gehiago dituztenek) ondarearen % 79 baitaratzen dute.

### 1.1.7. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen sektorearen dimentsio ekonomikoa.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEek kudeatzen duten ondarea oso adierazgarria da. Ikuspegi makroekonomikoari helduz, Euskadiko BPGaren % 35,2ren baliokidea 2015ean. Ratio horrek aditzera ematen du BGAEek Euskadin duten ezarpena eta garrantzia nabarmen handiagoak direla (ia laukoitza) pentsio-fondoek Espainian dituztenak baino, azken horien ondarea 2015ean BPGaren % 9,5 zela aintzat hartuta. BGAEek kudeatutako aktibo kopuru horren handiak zeregin zinez garrantzitsua ematen die finantzaren ikuspegitik.

BGAEen garrantziak behera egiten du gizarte-babesaren sisteman duten dimentsio erlatiboa aintzat hartzen badugu, finantza-dimentsioa aintzat hartu beharrean. Ekarpenen ondoriozko diru-sarrera arruntak eta gizarte-prestazioko gastuak BPGaren % 1 islatzen dute, hurrenez hurren.

Eskuragarri dauden datuak kontuan hartuz, 2015ekoak, ekarpenen ondoriozko diru-sarrera arruntak eta gizarte-prestazioetan egindako gastua, hurrenez hurren, osagarri izatea asmo den Gizarte Segurantzaren sistema publikoak urte horretan gizarte kotizazioen ondorioz bildutakoaren % 11 inguru eta gizarte-prestazioetan gastatuaren % 8,56 izan ziren.

**16. koadroa: Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen sektorearen dimentsio ekonomikoa. 2015. urtea**

	Mila eurotan	BPG (%)	Gizarte Segurantza (%)
Ekarpenak planak dituzten BGAEetara	656.382	1	11,44
Planak dituzten BGAEen prestazioak	624.857	1	8,56
Planak dituzten BGAEen ondarea	<b>24.177.372</b>	35,2	

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

BGAEek gizarte-babesaren diru-sarreretan eta gastuetan duten paperean dagoen horren alde handiaren interpretazioak hainbat azalpen ditu. Horien artean nabarmen daitezke sistema pribatua sistema publikoa baino gazteagoa dela edo hura bezain heldua ez dela, lehenengoaren orokortze falta eta bigarrenaren unibertsaltasun ia erabatekoa, edo ekarpen-maila nahiko baxuak direla sistema publikoko kotizazioekin alderatuz.

**1.1.8. BGAEen kudeaketa ekonomikoa**

**1.1.8.1. Aurreikuspen-planen errentagarritasuna**

Modalitate indibidualeko aurreikuspen-plan guztien artean eskuratutako batez besteko errentagarritasun haztatua (aurreikuspen-planen ondarearen arabera) % 0,87koa izan zen 2015ean. 17. koadroan, eskuratutako errentagarritasunak agertzen dira, orientazio inbertitzailearen arabera.

**17. koadroa: Batez besteko errentagarritasun haztatua orientazio inbertitzailearen arabera plan indibidualetan.**

Batez besteko errentagarritasun haztatua orientazio inbertitzailearen arabera plan indibidualetan.	
Orientazio inbertitzailea	%
Errenta aldakorra	4,39
Errenta aldakor mistoa	2,7
Errendimendu finkoko bermatuak	2,7
Bestelakoak	0,43
Errenta finkoa l/p	0,29
Errendimendu aldakorreko bermatuak	0,18
Errenta finkoa c/p	-0,18
Errenta finko mistoa	-0,32
Errenta finkoaren burtsa-indize bat errepikatu, erreproduzitu edo erreferentziatzen hartzen du	-2,75
<b>Batez besteko errentagarritasun haztatua guztira</b>	<b>0,87</b>

Iturria: Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza

2015. urtean orientazio inbertitzaile arriskatuagoa zuten plan indibidualek, errenta aldakorrerako esposiziorik handiena zutenek, lortu zituzten emaitza onenak. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da plan batean epe luzera eskuratzen den errentagarritasunak garrantzia erabakigarria duela metatutako azken kapitalaren zenbatekoan.

Horregatik, orientazio inbertitzailearen arabera plan mota hautatzerakoan asmatzea funtsezkoa da pentsio osagarri egoki bat lortu ahal izateko.

Haatik, hautaketa hori oso zaila izaten da pertsona gehientzat. Horri dagokionez, bizi-zikloko inbertsio-estrategiak, BGAEek ongi diseinatuak, oso positiboak izan daitezke pentsio osagarri egoki bat lortzera begira.

**18. koadroa: Aurreikuspen-plan indibidualak, urteko errentagarritasunaren arabera. 2015. urtea**

Errentagarritasuna. Plan indibidualen kopurua	
Negatiboa	55
% 0-5	256
% 5-10	32
> %10	3

18. koadroan, urte osoan indarrean izan diren modalitate indibidualeko aurreikuspen-planei dagozkien datuak agertzen dira, hots, errentagarritasunari buruzko urteko datua dutenenak.

**19. koadroa: Aurreikuspen-plan indibidualen kopurua. 2015. urtea**

Erakundearen Kodea	BGAEaren izena	Plan kopurua
92	GEROKOA E.P.S.V.	7
98	NORPENSION E.P.S.V.	35
100	BILBAO E.P.S.V.	4
102	GENERALI PREVISION, E.P.S.V.	4
106	EUSKADIKO PENTSIOAK E.P.S.V.	37
107	BANKINTER PREVISION EPSV	8
114	EUROPREVISION E.P.S.V.	11
117	WINTERTHUR E.P.S.V.	6
136	DB PREVISION, E.P.S.V.	2
140	MAPFRE VIDA UNO, E.P.S.V.	4
151	SVRNEPENSION-2, E.P.S.V.	11
154	BARCLAYS PREVISION E.P.S.V.	4
162	GEROCAIXA, E.P.S.V.	67
176	BANKIA PREVISION, EPSV	7
181	PAKEA PREVISION, E.P.S.V.	1
190	FINECOPENSION, EPSV	8
191	CATALANA OCCIDENTE PREVISION, EPSV	3
192	CASER PREVISION E.P.S.V.	6
198	ZURICH PENSIONES, EPSV	1
201	BASKEPENSIONES, EPSV	64
211	RURAL PENSION XXI, EPSV	12
214	FIATC PREVISION EPSV	1
216	AVIVA JUBILACION, EPSV	4
227	BANSABADELL PREVISION, EPSV	15
228	GENERALIPREVISION 2, EPSV	3
229	SANTANDER PREVISION 1, E.P.S.V.	30
231	PREVISION SANITARIA NACIONAL AURRIKUSPENA, EPSV	2
243	ESPIRITO SANTO EQUILIBRIO DE PREVISION, EPSV	2
248	ALTEGUI PREVISION, EPSV	4
268	RENTA 4 PREVISION, EPSV	3
273	MEDIOLANUM PREVISION, EPSV	3
275	AMISTRA EPSV	1
276	BESTINVER INDIVIDUAL EPSV	2
277	NOVAGALICIA PREVISIÓN EPSV	2
278	MARCH PREVISIÓN, E.P.S.V.	2
<b>Guztira</b>		<b>376</b>



### 1.1.8.2. Administrazio-gastuak

BGAEek eskuratutako errentagarritasuna, inbertsio-estrategiaren bidez eskuratutako errentagarritasunaren baitan egoteaz gain, administrazio-gastuen kontzeptuan aplikatzen den portzentajearen baitakoa da. Inbertsio-estrategia bera izan arren, gastu handiago batzuek oso eragin kaltegarria dute metatutako kapitalean epe luzera.

Horrenbestez, gastu neurrizkoa izatea da, inbertsio-estrategia egoki batekin batera hala finantzaren ikuspegitik nola bizi-zikloaren ikuspegitik (nahiko ekarpen egiten hasita adin goiztiarretan), beste faktore erabakigarria kapital egokiak lortzeko eta nahikoa den pentsio osagarri bat atera dadin hortik.

2015ean, enpleguko modalitatearen eta modalitate indibidualen artean gastuan izan zen aldea handia da. Jarraian emango den batez besteko administrazio-gastuaren portzentajea lortzeko, modalitate bakoitzeko plan guztien administrazio-gastuen portzentajeen batezbesteko aritmetikoa egiten da. Aurrekoarekin bat etorritz, BGAE indibidualetako administrazio-gastuak % 1,41ekoak izan ziren ondarearen gainean.

Bestalde, Enpleguko modalitateko BGAE guztien administrazio-gastuen batezbestekoa % 0,70ekoa izan zen. Horrek esanahi du BGAE indibidualetako gastuek Enpleguko BGAEek dakartzaten administrazio-gastuen portzentajea bikoizten dutela.

Alderaketa Enpleguko sektoreko 4 BGAEen (Enpleguko BGAE guztien ondarearen % 75 inguru hartzen dute) administrazio-gastuen batezbestekoarekiko egiten bada, zeina % 0,36koa den, ondorioztatzen da BGAE indibidualek ekartzen dituzten administrazio-gastuen portzentajeak ia laukoiztu egiten duela Enpleguko sektoreko 4 BGAEek dakarten portzentajearen batezbestekoa.

Ildo horretatik, kudeaketa kolektiboa duten enpleguko BGAEek abantaila argiak dituzte indibidualekin alderatuz gero. Eta abantaila hori oso garrantzitsua izan daiteke metatutako ondarearen edo jasotzeko eskubidea ematen duen pentsioaren balioaren azken kalkulua egiterakoan.

### 1.1.8.3. Orientazio inbertitzailea bazkideen adinaren arabera

Irizpide orokor gisa, inbertsio motetan desberdintasunen bat egon behar da bazkideen adinaren arabera: zenbat eta gazteago, orduan eta ausartago; zenbat eta zaharrago, orduan eta ziurrago. Erretiratzeko adina hurbiltzen den heinean, inbertsioak ziurragoak izan behar dute, nahiz eta errentagarritasun handiagoa duten aukerak galtzeari esker izan, arriskuak metatutako kapital guztiari eragiten baitio; hala ere, gaztetan metatzeko urte asko geratzen dira eta arriskatzeko kapitala txikiagoa da, eta, hortaz, inbertitzeko garaian errentagarritasun handiagoen bilaketak behar du irizpide nagusia.

#### 20. koadroa: Bazkide kopurua, adinaren eta planaren orientazio inbertitzailearen arabera. 2013. urtea

Edad	Conservadora			Riesgo medio		Arriesgada	Otros	TOTAL
	Garantizados	Renta fija c/p	Renta fija l/p	Renta fija mixta	Renta Var. mixta	Renta Variable	otros	
<b>&lt; 36 años</b>								
--Número	18.647	35.461	12.869	130.055	6.064	5.995	2.257	211.348
--%	8,8%	16,8%	6,1%	61,5%	2,9%	2,8%	1,1%	100%
<b>36- 45 años</b>								
--Número	65.889	63.975	34.267	201.086	18.288	15.850	8.996	408.351
--%	16,1%	15,7%	8,4%	49,2%	4,5%	3,9%	2,2%	100
<b>46- 55 años</b>								
--Número	116.921	71.646	37.738	183.191	20.868	21.574	14.083	466.021
--%	25,1%	15,4%	8,1%	39,3%	4,5%	4,6%	3,0%	100
<b>56-65 años</b>								
--Número	90.165	60.039	26.070	121.211	13.613	14.388	9.643	335.129
--%	26,9%	17,9%	7,8%	36,2%	4,1%	4,3%	2,9%	100
<b>&gt; 65 años</b>								
--Número	28.935	27.622	11.398	39.749	5.228	4.733	4.082	121.747
--%	23,8%	22,7%	9,4%	32,6%	4,3%	3,9%	3,4%	100
<b>Total</b>								
--Número	320.557	258.743	122.342	675.292	64.061	62.540	39.061	1.542.596
--%	20,8%	16,8%	7,9%	43,8%	4,2%	4%	2,5%	100

BGAEtako bazkideek, oro har, irizpide hori betetzen dute. 20. koadroari erreparatzen badiogu, honako hau ikus dezakegu: kontserbatzailetzat hartu dugun inbertsioa –zehazki, epe laburreko errenta finkoko inbertsioa eta bermatuetakoa– hazi egiten da argiro bazkidearen adinak aurrera egin ahala. 36 urte baino gutxiago dituztenek epe laburrean dute inbertitua fondoan % 17; 64 urte baino gehiago dituztenen artean, berriz, ehuneko hori % 23ra igotzen da. Plan bermatuetan portaera bera ikus daiteke.

Hala ere, ezin da baieztatu gazteen inbertsioek profil egokia dutenik errentagarritasun handiago bat lortzeko asmoz beren gain hartzen duten arriskuari dagokionez, ez baita logikoa 36 urte baino gutxiago dituztenek beren ondarearen % 32 inbertsio kontserbadoreetan inbertitzea, eta ehuneko hori % 93raino iristea, errenta aldakorra % 30eraino iristen ez den tokian inbertitutakoa kontuan hartzen badugu. Horri dagokionez, 56-65 urtekoen portaera inbertitzaitetik gertu dago. Izan ere, azken horiek zorro kontserbadoreetan ehuneko handiagoa inbertitzen duten arren (% 53), ehunekoa ia berbera da (% 89) errenta aldakorra % 30era iristen ez den aktiboetan inbertitua eransten badiogu.

Biztanleria gazteenaren fondo-esleipen hori ez da eraginkorra, ez delako bereizten gazteen eta helduen orientazio inbertitzailea. Zehazki, 35 urtetik beherako bazkideen % 3k bakarrik hautatu ditu arrisku handieneko aurreikuspen-planak, non errenta aldakorrak aktiboaren % 75etik gorako garrantzia duen. Helduen kasuan logikoa denak ez du batere logikarik gazteen kasuan, inbertitzeko kontserbadurismoarekin pentsio nahikoa lortzea ahalbidetuko duen azken kapitala lortzeko beharrezkoa den errentagarritasunari uko egiten baitiote.

#### **1.1.8.4. Egungo sarketa eta erabileraren egoera egiazkoari buruzko zenbait gogoeta.**

Sektorearen bolumen handiek, alderaketa eginez, ezin dituzte ezkutatu hainbat gertakari, hots:

- Ekarpen berantiarraren, inbertsio-profil kontserbadorearen, administrazio-gastuen eta erreskateen bolumenen ondorioz sistema indibidualak ekarpen urria egiten du potentzialki etorkizuneko pentsioetan.
- Enplegu-sistema garatuago dagoen honetan ere, kontuan hartu behar da hartako ondarearen % 60 baino gehiago aurrezki kutxetako kooperatibistek eta langileek osatutako 50.000 elkartu baino gutxiagoetan metaturik dagoela. Gainera, oso litekeena da ondare horren erdia 10.000 pertsona baino gutxiagoan metatzea (Euskadiko langileen % 1 izango litzatekeena gutxi gorabehera).

- Horren guztiorren ondorioz, *Ekonomiaz*<sup>85</sup> argitalpenak sarketari buruz egindako artikuluko ondorioen arabera, Euskadiko 2006ko gizarte-aurreikuspen osagarriaren arabera aurreikuspen osagarria izan beharko luketenen artean (langileen % 70 izango lirateke):
  - Soilik % 30ek du pentsio osagarri adierazgarria eta, agian, nahikoa. Kolektibo hori enplegu-sistema on bat duten batzuek, gutxi, osatzen dute eta, batez ere, enplegu-plan neurritzkoa eta plan indibidual adierazgarria duen beste kolektibo batek.
  - Beste batzuek, % 25/30ek, nolabaiteko harremana dute aurreikuspen osagarriarekin, baina sortuko duten aurrezki-pentsio bitasuna ez da aski izango argi eta garbi.
  - Aurreikuspen osagarria izan beharko luketenen artean, % 40k ez du modu adierazgarrian aurrezten.

## 1.2. ESPARRU JURIDIKOA

### LEGEA

Otsailaren 23ko 5/2012 Legea, Borondatezko Gizarte Aurrezaintzako Entitateei buruzkoa. BGAEen araudi orokor eta oinarritzkoa.

### DEKRETUAK

203/2015 Dekretua, 2015eko urriaren 27koa, 5/2012 BGAEen Legearen Erregelamendua onartzekoa, BGAEen Legearen ezinbesteko garapena arautzekoa: bertan hainbat berritasun sartzen dira; esate baterako, modalitate indibidualako BGAEetan derrigorrezko bizi-zikloko planak barneratzen ditu, gobernu eta gobernantza onerako betekizun berriak sartzen dira, bazkideek informaziorako duten eskubidea indartu egiten da, bazkideentzat berme gehiago dakartza, BGAEek ematen dituzten prestazioen irismena osatzen du eta BGAE ez diferentziatuak arautzen ditu. Dekretu horretan indarrean mantentzen dira maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuko zenbait manu eta baita otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuko beste zenbait ere.

---

<sup>1</sup> Ekonomiaz 85. Gizarte-aurreikuspen osagarria. Garapenaren papera eta gakoak. Artikulua: Enpleguko BGAE nahiz BGAE indibidualen garapena Euskadin.

Martxoaren 16ko 86/2010 Dekretua, Aseguru-erakundeen kontabilitate-planak Euskadiko Borondatezko Gizarte aurreikuspeneko Erakundeen bereizgarrietara egokitzea onartzekoa.

Abenduaren 12ko 252/2006 Dekretua, "Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak baliatuta bideraturiko gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak" arautzekoa.

BGAE berriei edo BGAEetan txertatzen diren eta hainbat betekizun betetzen dituzten Aurreikuspen Planei emandako laguntzak: ekarpen partekatuak, prestazioak biziarteko errenta modura, ordezkaritza paritarioa, administrazio-gastuen kostu baxuak. Laguntza horietan sartzen dira zuzeneko ekarpenak eta eraketa-gastuetarako diru-laguntza.

#### AGINDUAK

Ogasun eta Finantza Sailburuaren 2013ko maiatzaren 21eko AGINDUA, aktibo jakin batzuk Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetan inbertsioa egiteko moduko aktibo modura kalifikatzeari buruzkoa.

BGAE batean inbertsioetarako modukotzat barneratzen ditu kreditu erakundeetako zazpi urte edo gutxiagoko epeko gordailuak, , baldin eta horien egoitza Europar Batasunaren estatu kide batean badago eta ELGaren dibisa merkatuetan negoziatzen den dirutan izendatuta badaude.

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuaren 2008ko abenduaren 3ko Agindua, "Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetako Gobernu Batzordeetako kideak osatzekoa gizarte-aurreikuspenean".

Gobernu-organoek behar adina ezagutza eduki behar dute euren egitekoak behar bezala gauzatu ahal izateko eta dituzten betebeharrak honako hauek lortuz betetzeko: pertsona elkartuen kolektiboaren eskubideak eta prestazioak hobeki babestea, arriskuak kontrolatzea eta pentsio-sistemen administrazio zuzena sustatzea. Prestakuntza arloko gutxieneko betekizunak arautzen dira eta gizarte-aurreikuspenarekin lotutako oinarrizko ikastaroa sortzen da.

Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2009ko apirilaren 29ko Agindua, BGAEen hainbat jarduera egitea arautzen duen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren zenbait manu garatzekoa.

Agindu honek funtsezko hiru esparru garatzen ditu: 1) BGAEek egiten dituzten jarduerari ematen zaizkien eskubide eta betebeharretan bereizketa egokia egitea; 2) BGAEn ohiko jardunbidearen ondorioz (finantza-bitarteko jakin batzuk erabiltzeagatik) arrisku handiagoa sortzen den gaien garapena eta, azkenik; 3) entitate horien gardentasuna.

## EBAZPENAK

Finantza Zuzendariaren 2012ko martxoaren 9ko Ebazpena, Euskadiko BGAEek aurkeztu beharreko kontabilitateko estatistikaren dokumentazioa aurkezteko epe berriak onartzekoa.

Kontabilitate-estatistikako dokumentazioa aurkeztearekin lotutako hiruhilekoko eta urteko betebeharrak ezartzen dira.

Finantza Zuzendariaren 2011ko azaroaren 8ko Ebazpena, maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuko 8., 10. eta 13. artikuluetan jasotako irizpideak aplikatzeko argibideak onartzekoa; 92/2007 Dekretuak BGAEetako hainbat jardura arautzen ditu, Aurreikuspen Plan Bermatu Indibidualek barneratu behar dituzten betekizunak finkatuz.

Plan bermatuek izan behar dituzten betekizunak arautzen dira eta kanpo bermearen eta barne bermearen arteko bereizketa egiten da.

Finantza Zuzendariaren 2011ko martxoaren 24ko Ebazpena, BGAEek aurkeztu beharreko kontabilitate-estatistikako dokumentazioaren ereduak eguneratu eta onartzekoa.

Finantza Zuzendariaren 2010eko martxoaren 22ko Ebazpena, eskubide ekonomikoen likidazio-balioaren epeak eta data onartzekoa Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetarako prestazioak eta erreskateen balizko ordainketetan.

Modalitate indibidual eta elkartuko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek kontuan izan beharko dute prestazioak eta erreskatea ordaintzeko gehienezko epea 5 egun baliodunekoa dela Erakundearen egiaztagiri guztiak aurkezten direnetik zenbatzen hasita.

Finantza Zuzendariaren 2010eko urtarrilaren 26ko Ebazpena, maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuko manu jakin batzuk garatzeko 2009ko apirilaren 29ko Aginduko 27. artikuluan ezarritako irizpideak garatzekoa, BGAEetako Aurreikuspen Planetako arriskuaren profila, administrazio-gastuak,

errentagarritasun historikoa nahiz horiek helarazteko modua argitaratu ahal izateko Administrazioari helarazi beharreko datuak finkatuz.

Errentagarritasunak nahiz administrazio-gastuak bateratzeko jarraitu beharreko irizpideak zehazten dira: aurreikuspen-plan indibidualak eta erkatuak estandarizatu egiten dira, haien inbertitzeko bokazioaren arabera.

## INSTRUKZIOAK

2012ko urriaren 17ko Instrukzioa, publizitate-kanpainak Eusko Jaurlaritzako Finantza Zuzendaritzaren aurrean jakinarazteko epeari buruzkoa.

BGAEEK dagokion publizitate-euskarria kanpaina abiatu baino hogeit hamar egun lehenago igorri beharko dute. Halaber, igorritako publizitatea erakunde horien publizitateari buruzko erkidegoko araudiarekin bat ez badator, Finantza Zuzendaritzak, beranduenez, kanpaina abiatu baino bost egun lehenago, BGAEEi buruzko aipatu legeriara egokitzeko horietan egin beharreko aldaketak jakinaraziko ditu.

Ogasun eta Finantza Sailburuordetzaren 2012ko uztailaren 26ko Instrukzioa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko 5/2012 Legeko artikulua jakin batzuk interpretatzeko irizpideak onartzekoa, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioak egindako kontsultaren ondorioz.

BGAEEKo 5/2012 Legea onartu ostean, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioaren bidez gizarte-aurreikuspeneko sektoreak egindako kontsultei emandako erantzuna.

Administrazio-gastu kontzeptuan finkatutako portzentajea egozteko prozedura.

Administrazio-gastuak bazkideen eskubide ekonomikoen kalkuluan egozteko moduaren eskuliburua.

### **1.3. TRIBUTU-ESPARRUA.**

Euskadin BGAEEK izan duten garapen adierazgarria ez litzateke posible izango araudi fiskal egoki bat ez balego.

Euskadin arlo fiskaleko eskumenak, Ekonomia Itunaren arabera, Lurralde Historikoetako Foru Aldundiei eta Batzar Nagusiei dagozkie, baina Eusko Jaurlaritzak Autonomia Estatutuan harmonizazio, koordinazio eta lankidetzaren arloan jasotzen dituen eskumenak kontuan izanda (EZKO).

Araubide fiskala ikuspuntu hauetatik abiatuz aztertu behar dugu, hots:

- BGAEetako, berezko izaera juridikoa eta hura osatzen duten bazkideenaz bestelakoa duten erakunde gisa.
- Zenbakizko bazkidearen edo arruntaren ekarpenen zerga arloko araubidea.
- Bazkide babeslearen ekarpenena.
- Emandako prestazioen zerga arloko araubidea.

### **1.3.1. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen zerga arloko araubidea.**

#### **1.3.1.1. Sozietateen gaineko zerga**

Erretiro, heriotza, ezintasun iraunkor, gaixotasun larri edo iraupen luzeko langabeziari aurre egiteko prestazioak edo mendekotasunagatik prestazioak % 0ko tasan ordainduko dira sozietateen gaineko zergan, kapital higigarriaren errendimenduetako atxikipenak itzultzeko eskubideaz, jatorrian atxikipen bakarra duten finantza-aktiboen errendimendu inplizituei dagozkienak salbuetsita.

Gainerako BGAEak % 21eko tasa murriztuan ordainduko dira.

#### **1.3.1.2. Ondarearen gaineko zerga, aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, BEZa, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga.**

BGAEak salbuetsita dauden aipatutako zergetan.



**1.3.2. Zenbakizko bazkidearen edo arruntaren ekarpenen zerga arloko araubidea**

**BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEEI EGINDAKO EKARPENEN ARAUBIDEA**

**2015**

<b>PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA</b>		
<b>MURRIZKETAREN MUGAK</b>		
<b>BEREZKO EKARPENAK</b>	<b>ENPRESAKO KONTRIBUZIOAK</b>	<b>BATERAKO MUGA</b>
5.000 € urtean	8.000 € urtean	12.000 € urtean
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekarpen handiagoak ez adinarekin lotutako arrazoiak direla medio.</li> <li>• Ez dago murrizketarako aukerarik erretiro-egoeran egon eta hurrengo zergaldia hasten denetik aurrera.</li> <li>• Kapital erako harrera bat dakarten ekarpen edota kontribuzioak gertatzen diren ekitaldian, murrizteko zenbatekoa PFEZ zergaren zerga-oinarrian hartutako horren ondorioz egiaz barneratzen den kopurura mugatuko da, salbuespen hauekin:             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpleguko BGAEetara egindakoak.</li> <li>- sarrerarik ez duen edo urtean 8.000 euro baino gutxiagoren sarrerak dituen ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen alde egindakoak eta ezindutako pertsonen alde egindakoak.</li> </ul> </li> </ul>		
<b>EZKONTIDEAREN / IZATEZKO BIKOTEKIDEAREN ALDEKO EKARPENAK</b>	<b>SARRERARIK GABE EDO ZENBATEKO HONETATIK BEHERA:</b>	<b>MURRIZKETAREN MUGA</b>
	8.000 € urtean	2.400 € urtean
<b>ENPRESAKO EKARPEN ETA KONTRIBUZIOEN SOBERAKOAK</b>		
<b>MUGAK ONDORIOZ</b>	<b>GAINDITZEAREN</b>	Hurrengo bost ekitaldietan murrizteko aukera, baldin eta murrizketa aplikatzen den ekitaldian pertsona elkartuak ez badaude erretiro-egoeran.
<b>ZERGA-OINARRIAREN GUTXIEGITASUNAGATIK</b>		Hurrengo bost ekitaldietan murrizteko aukera, baldin eta murrizketa aplikatzen den ekitaldian pertsona elkartuak ez badaude erretiro-egoeran.

**PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA  
ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA**

<p><b>EZINDUTAKO PERTSONEN ALDE ERATUTAKO AURREIKUSPEN-SISTEMETARA EGINDAKO EKARPENAK</b></p>	<p align="center"><b>EZINDUA IZATEKO BALDINTZAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Desgaitasun fisikoa edo zentzumenezkoa dutenak, % 65ekoa edo handiagoa.</li> <li>• Psikikoa, % 33koa edo hortik gorakoa edo</li> <li>• Judizialki deklaratu Kode Zibilaren kausen arabera, gradua edozein delarik ere.</li> </ul>	<p align="center"><b>EKARPENAREN EGILEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezindutako pertsona bera.</li> <li>• Senideak lerro zuzenean edo albo-lerroan hirugarren lerrora arte.</li> <li>• Ezkontidea, izatezko bikotekidea eta tutoretza edo harrera erregimena dutenak.</li> </ul>
<b>MURRIZKETAREN MUGAK</b>		
<p>PERTSONA EZINDUAREN EKARPENAK</p>	<p>24.250 € urtean</p>	
<p>BESTE PERTSONA BATEN EKARPENAK</p>	<p>8.000 € urtean</p>	
<p>EKARPENAK GUZTIRA</p>	<p>24.250 € urtean (Pertsona ezinduarenak barne)</p>	
<p>SOBERAKO EKARPENAK MUGAK GAINDITZEAREN ONDORIOZ EDO ZERGA-OINARRIAREN GUTXIEGITASUNAGATIK</p>	<p>Hurrengo bost ekitaldietan murrizteko aukera.</p>	

### 1.3.3. Bazkide babeslearen ekarpenen zerga arloko araubidea

<b>SOZIETATEEN GAINKO ZERGA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA</b>	
<b>BAZKIDE BABESTUEN EKARPENEN ONDORIOZKO LANGILEEI EGOTZIA</b>	<b>KENKARIA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Kenkaria gastu modura</b> Zergaren Zerga-oinarrian.</li><li>• <b>Kenkaririk ez kuotan.</b></li></ul>

Araubide honetan salbuespen garrantzitsu bat barneratzen da indarreko legezko eta arlo fiskaleko garapen guztiaren aurretik beren langileekin gizarte-aurreikuspen osagarri bat itundu zuten enpresarien alde. Modu horretan, bazkide babesleek kontribuzioen zenbatekoa ken dezakete sozietateen gainko zergan, baldin eta konpromisoak edo itunak 1986ko irailaren 17koak badira, langileei edo elkartuei PFEZ zergaren zerga-oinarrian zenbateko horiek egoztea eskatu gabe.

Halaber, ekarpenak beharrezkoak direnean indarreko prestazioak edo BGAEetako bazkideen eskubideak edo erretirorako zehaztutako prestazioaren araubideak barneratzen dituzten aurreikuspen-planak bermatzeko eta berrikuspen aktuariaren bidez BGAE edo aurreikuspen-plan horretan defizit bat dagoela agerian geratu bada, ez da beharrezkoa izango langileari egozte.

#### 1.3.4. Jasotako prestazioen zerga arloko araubidea

### BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEEN ALDEKO EKARPENEN ARAUBIDEA

<b>PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA</b>		
<b>TRATAMENDU FISKALA</b>	<b>LANAREN ETEKINAK</b>	
<b>HARRERA MODUA</b>	<b>PFEZ ZERGAREN ZERGA-OINARRI OROKORREAN TXERTATZEA</b>	
↗ <b>ERRENTA</b>	% 100	
↗ <b>KAPITALA</b> Jasotako lehen zenbatekoa (baldin eta 2 urte baino gehiago igaro badira lehenengo ekarpenetik, ezintasuna edo mendekotasuna salbuetsita).	300.000 € gehienez: % 60 Gainerakoak: % 100	
↗ <b>MISTOA (KAPITAL-ERRENTA)</b>	<b>KAPITALA:</b> 300.000 € gehienez: % 60 Gainerakoak: % 100	<b>ERRENTA:</b> % 100
<b>PERTSONA EZINDUEK ERRENTA MODURA JASOTAKO PRESTAZIOAK</b>	Salbuespena lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) hirukoitzaren mugarekin.	

#### 1.4. EUSKAL FAMILIEN FINANTZA-EGOERARAKO HURBILKETA

##### ERRENTA ETA ONDAREA

Gizarte-politikan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak eratzen duen Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkestak (TGDI), bizi-baldintzei buruzko Europako estatistika publiko

zaharrenetako batek<sup>2</sup>, Euskadiko etxeetako ondarearen balioari eta osaerari buruzko informazioa ematen du. Eragiketa horri esker, errenta eta ondarezko baliabideak elkarlotu daitezke eta, modu horretan, euskal familietako finantza-egoerari buruzko hurbilketa bat egitea ahalbidetzen du epe ertain eta luzera begira.

Jarraian 2012ko TGDI inkestaren emaitza nagusiak aurkezten dira etxeetako errenta erabilgarriarekin eta aberastasun gordinarekin lotuta, aberastasunari buruzko emaitza horiek Espainiako Bankuaren 2011ko Familietako Finantza Inkestan (EFF) Estatuarentzat kalkulaturakoekin alderatzen dira eta euskal familiek dituzten aktiboak grabatzen dituen zorra kalkulatzeko da horien aberastasun garbia eskuratzeko. Azkenik, zenbait ohar egiten dira.

### **Etxeetako errenta erabilgarria eta aberastasuna<sup>3</sup>**

2012ko TGDI inkestarekin bat etorriz, 2012an Euskadiko etxeetan batez beste erabilgarri zegoen errenta, eskala-ekonomiak kontuan hartu gabe, hots, etxe bakoitzeko kide kopuruaren eta horien adinaren arabera inolako ekibalentziarik aplikatu gabe, 30.500 eurokoa da, eta mediana, berriz, 27.700 eurokoa, batezbestekoaren % 91 (21. koadroa). Hau da, etxeen % 50ean 27.700 eurotik gorako diru-sarrera erabilgarriak daude urtean, eta beste % 50ean zenbateko horretatik beherakoa.

Medianaren bidez errentaren eta aberastasunaren moduko aldagaien banaketako balio tipikoetara gehiago hurbil daiteke batezbestekoarekin baino; izan ere, oso handiak diren balio nahikoa gutxi sartzen duen alborapena baztertu egiten da. Horri dagokionez, bi estatistika horietako balioen arteko hurbiltasuna TGDI inkestaren diseinu metodologikoak azaltzen du. Aipatu inkestaren helburu nagusia txirotasun-ildo ezberdinen ikerketa eta ebaluazioa egitea da eta, modu horretan, gabeziako egoeren ezagutzari erreparatzen dio arreta gehiagoz. Edozein kasutan, diseinu horrekin berretsi egiten da

---

<sup>2</sup> TGDI inkesta, zeina Estatistikako Euskal Planean barneratzen baita, lau urtean behin egiten da 1996tik, eta haren aurrekaria *Euskadiko Gizarte Egoera Ahulei buruko Ikerketa* (ESSDE) da, 1986koa.

<sup>3</sup> Etxeko errenta erabilgarrian sartzen dira laneko ordainsariak eta kapitala gehi hartako kide guztiek jasotako transferentziak ken derrigorrezko kotizazioak eta zerga zuzenak.

Aberastasuna zenbaki gordinetan adierazten da, hau da, aktiboen balio osoa (errealak eta finantzarioak), baitaratzeko dauden zorrak kendu gabe. Aberastasuna edo ondarea kalkulatzeko, TGDI inkestak hiru osagai nagusi bereizten ditu: jabetzako etxebizitza, ondasunezko beste zenbait ondare (bigarren egoitza, beste etxebizitza bat, lurra, lonjak, finkak, etab.) eta aurrezki erabilgarriak (orotariko finantza-aktiboak).

aurkeztutako datuak atal honetan bilatzen diren helburuari dagozkiola, hots, errenta ertainak eta ertain-baxuak dituzten euskal familiek dituzten ondarezko baliabide erabilgarriak ikusi ahal izatea.

## 21. koadroa: Euskadiko etxeetako errenta erabilgarria eta aberastasuna 2012 (eurotan)

	% hogares	Renta disponible		Riqueza	
		Mediana	Media	Mediana	Media
<b>Todos los hogares</b>	100,0	27.700	30.500	241.200	270.100
<b>Nivel de renta disponible</b>					
< 6.000	0,7	5.100	4.100	175.500	150.900
6.000-18.000	26,6	12.500	12.700	180.000	169.900
18.000-30.000	28,7	24.000	24.100	225.600	248.000
30.000-42.000	21,7	35.600	35.700	265.800	288.400
42.000-54.000	13,1	47.300	47.400	293.800	339.500
54.000-66.000	5,4	58.900	59.100	389.000	475.000
66.000-90.000	3,1	73.400	75.000	444.000	488.300
>90.000	0,7	95.200	99.500	606.400	654.100
<b>Edad del cabeza de familia</b>					
15-24	0,5	14.400	14.500	-	257
25-34	9,3	25.800	28.400	72.000	128.200
35-44	19,8	30.500	32.400	210.000	223.800
45-54	20,8	33.400	36.000	251.200	283.000
55-64	17,1	35.800	38.300	284.000	353.200
>65	32,6	19.800	22.700	246.800	290.600

Iturria: TGD, 2012 eta geuk egina.

Euskadiko etxeen erdiek, % 50,4k, 18.000 eta 42.000 euro arteko errenta erabilgarria dute, eta % 77,7k 42.000 eurotik beherakoa (ikus 20. koadroa). Familiaburuaren adinaren arabera, batezbestekoa eta mediana igo egiten dira, eta goia jotzen dute pertsona nagusiak 55-64 urte bitarteko adina duen etxeetan; eta ondoren % 41 eta % 45 jaisten dira, hurrenez hurren, familiaburuak 65 urte baino gehiago dituen etxeetan; azken multzo horrek etxe guztien % 32,6 islatzen du.

Bestalde, Euskadiko familien aberastasun-mediana 2012an 241.200 eurokoa zen; hain zuzen, batezbestekoaren % 89,3. Lokikoa den moduan, aberastasuna errentarekin batera igotzen da. Atentzioa ematen du 42.000 eta 54.000 euro bitarteko errentak dituen multzoak metatutako ondarearen erdiko balioaren (293.800 euro) eta 54.000 eta 66.000 euro bitarteko errentak dituen multzoak duenaren (389.000 euro) artean dagoen aldea, % 32,4ko jautzia. Adin-tartearen arabera, banaketak bizi-zikloaren profilararen arabera bilakaera ageri du. Horrela, maximora iristen da balio

hori 55-64 urte bitarteko adina duen pertsona bat familiaburu den etxeetan, eta ondoren batez besteko aberastasunaren nahiz medianaren balioak % 18 eta % 13 jaisten dira, hurrenez hurren, familiaburuak 65 urte baino gehiago dituen etxeetan.

### Aberastasunaren banaketa, aktibo motaren arabera

Aktiboen balioaren arabera etxeetako aberastasunaren banaketari dagokionez, etxebizitza nagusia aktibo guztien balioaren hiru heren baino gehiago da (% 76,2), gainerako jabetza higiezinak (bestelako aktibo errealak) % 15,2 dira; beraz, likidezia urrireneko aktiboen multzoaren garrantzia % 91,3koa da, eta finantza-aktiboena da balio osoaren gainerako % 8,7a (ikus 22. koadroa).

### 22. koadroa: Euskadiko etxeetako aberastasunaren balioaren banaketa 2012an (% horizontalak)

	Activos reales			Activos financieros
	Vivienda principal	Otros	Total activos reales	
<b>Todos los hogares</b>	76,2	15,2	91,3	8,7
<b>Nivel de renta disponible</b>				
< 6.000	93,2	4,1	97,3	2,7
6.000-18.000	84,1	12,2	96,4	3,6
18.000-30.000	79,2	13,3	92,5	7,5
30.000-42.000	77,9	14,4	92,4	7,6
42.000-54.000	71,0	18,6	89,6	10,4
54.000-66.000	68,0	19,5	87,6	12,4
66.000-90.000	66,9	15,5	82,4	17,6
>90.000	50,1	25,9	76,0	24,0
<b>Edad del cabeza de familia</b>				
15-24	-	-	-	100,0
25-34	83,3	6,2	89,5	10,5
35-44	81,4	10,9	92,3	7,7
45-54	75,8	15,6	91,3	8,7
55-64	71,1	18,0	89,1	10,9
>65	76,3	16,2	92,5	7,5

Iturria: TGD, 2012 eta geuk egina.

Aktibo errealen balioak, aktibo guztien balioaren proportzio modura, 20 punturen aldea erakusten du errentaren beheko mailen alde, nahiz eta maila altuenean funtsezko zatia diren oraindik (% 76).

Etxebizitza nagusiak garrantzi erlatiboa galtzen du beste aktibo errealeen eta finantza-aktiboen alde errentak gora egin ahala; horrela, aktibo guztien balioaren % 80 inguru islatzen du errenta ertainetan eta ertain-baxuetan (6.000 eta 42.000 euro bitartean) eta % 50era jaisten da maila altuenean. Zehazki, finantza-aktiboen partaidetza aktibo guztien balioan % 3tik, 18.000 eurotik beherako errentetan, % 24ra igotzean da, errenta handieneko taldean.

Familiaburuaren adinaren arabera, gazteenak buruan diren familietan ez dago aktibo errealik. Gainerako taldeen kasuan, aktibo errealeen balioak antzeko proportzioa islatzen du, hots, aktiboen balio osoaren % 90ekoa.

Etxebizitza nagusiaren balioak garrantzia galtzen du aktibo guztien balioaren % 71,1era arte jaitsiz familiaburuak 55-64 urte bitarteko adina duenean, % 76,3ra arte igotzen delarik familiaburuak 65 urtetik gora dituenen. Gainerako aktibo errealek lehen etxebizitzak erakusten duen ibilbidearen kontrakoa ageri dute, eta 55-64 urte bitarteko adina dutenen taldean dute garrantzi handiena, % 18 batekin.

Finantza-aktiboek pertsona nagusiaren adina 55 urtetik beherakoa den etxeek dituzten aktiboen balio osoaren % 8,5eko batezbestekoa islatzen dute, % 10,9ko goia jotzen dute 55-64 urte bitartekoen multzoan eta % 7,5era jaisten da portzentajea adin nagusikoak buru diren etxeetan.

#### **Euskadiko eta Estatuko etxeetako aberastasun alderatua<sup>4</sup>**

Euskadiko etxeetako aktiboen balioaren banaketa Estatukoarekin alderatuz agerian geratzen denez, Euskadiko familien kasuan etxebizitza nagusiak garrantzi handiagoa du aktibo guztien balioan % 76,2ko portzentaje batekin, Estatuko % 50,9aren aurrean. Aktibo erreal guztiak aintzat hartzen

---

<sup>4</sup> Espainiako datuak Espainiako Bankuaren 2011ko Familien Finantza Inkestatik (EFF) eratortzen dira (Buletin Ekonomikoa, 2014ko urtarrila). EFF inkesta horren ezaugarri bat zera da, aktiboen banaketa oso asimetrikoa denez eta, gainera, horietako zenbait esku gutxitan metatzen direnez, aberastasun-maila handieneko etxeetako gain-laginketa egiten duela ekonomiaren aberastasun agregatua ere islatuko duen lagin bat agertzeko. 2011ko EFF inkestaren laginketa osoaren tamaina 7.000 etxekoa izan zen. Bestalde, adierazi den moduan, TGDInkestak ez du orientazio hori. Dena den, nabarmendu behar da bere laginketa-tamaina askoz ere zabalagoa dela. Hala, 2012ko edizioan guztira 4.200 euskal familia elkarrizketatu ziren. Diseinu ezberdin horrek justifika dezake finantza-aktibo motaren bat dutela adierazi zuten Euskadiko etxeen portzentaje urria (% 75,6), Estatuarekin alderatuz (% 95,8), eta baita, etxebizitzaren balioa Estatuko lurralde guztiekin alderatuz altuena izateaz gain, aktibo horiek balio osoarekiko duten ezberdintasun adierazgarriena ere (Euskadin % 8,7 eta Estatuan % 15,6).



badira, proportzioak oso antzekoak dira, zehazki, % 91,3koa Euskadin eta % 84,4koa Estatuan. Balio osoa finantza-aktiboekin osatzen da. Horien kasuan Euskadin gainerako % 8,7a ematen dute, Estatuarekin alderatuz (% 15,6) hartako erdia baino zertxobait gehiago (ikus 23. koadroa).

### 23. koadroa: Etxeetako ondarearen osakeraren alderaketa aktiboen balioaren arabera (etxeen %).

	Activos reales		Activos financieros	Activos distintos 1ª vivienda
	Vivienda principal	Otros		
Euskadi	76,2	15,2	8,7	23,8
España	50,9	33,5	15,6	49,1

Iturria: 2012ko TGDI, Espainiako Bankuaren 2011ko EFF eta geuk egina.

Aktiboak edukitzeari dagokionez, Euskadiko etxeetako % 91,5ek aktibo motaren bat dauka, erreala edo finantzarioa. Estatuan portzentaje hori % 98,9koa da (23. koadroa). Etxe horien kasuan haietako aktiboen erdiko balioa 253.000 eurokoa da, % 34 gehiago Estatuarekin alderatuz (189.000 euro). Etxeetako portzentajearen dagoen alde hori finantza-aktiboen edukitzean islatzen da, 20 puntu gutxiago Euskadin (% 75,6) Estatuarekin alderatuz (% 95,8), halakoak dituzten Euskadiko etxeen kasuan erdiko balioa 15.400 eurokoa izanik, Estatuan baino (9.300 euro) % 65 gehiago [ikus 3 zenbakidun oin-oharra -- orrialdean].

Bere etxebizitza nagusiaren jabe diren Euskadiko familiak % 83,9 dira, Estatuaren antzeko proportzioa (% 83,1), 220.000 euroko erdiko balio batekin, Estatu osorako 150.000 euroko erdiko balioarekin alderatuz % 47 gehiago (ikus 24. koadroa).

### 24. koadroa: Etxeetako ondarearen alderaketa aktiboen arabera

	Hogares que poseen el activo (%)				Mediana del valor del activo para los hogares que lo poseen (euros)			
	Activos reales				Activos reales			
	Vivienda principal	Algún tipo de activo real	Activos financieros	Algún tipo de activo	Vivienda principal	Algún tipo de activo real	Activos financieros	Algún tipo de activo
Euskadi	83,9	85,5	75,6	91,5	220.500	240.000	15.400	253.000
España	83,1	90,0	95,8	98,9	150.300	182.000	9.300	188.900

Iturria: 2012ko TGDI, Espainiako Bankuaren 2011ko EFF eta geuk egina.

## Etxeetako aberastasun garbia

Aberastasun aktiboa zehaztu ahal izateko, zorrak aktibo mota bakoitzean duen garrantzia hartzen da kontuan<sup>5</sup>. Euskadiko etxeetako zorrak haietako aktiboen balio osoaren % 13 islatzen du, etxebizitza nagusia baitaratzeko ordaindu gabeko zorra % 82,6 izanik. Estatuaren kasuan etxebizitzaren erosketaren ondoriozko ordaindu gabeko zorrak partaidetza txikiagoa du etxeetako pasiboetan (% 62,5), zor-maila handiagoko aktibo bat izanik, zorrak aktibo guztien gainean duen garrantzia txikiagoa delarik (% 11,5) (ikus 25. koadroa).

### 25. koadroa: Zorra Euskadiko etxeetan

	Distribución del valor de la deuda (%)			Deuda como porcentaje de activos totales
	Vivienda principal	Resto activos	Total	
Euskadi	82,6	17,4	100,0	13,0
Estado	62,5	37,5	100,0	11,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2012.  
Espainiako Bankua. Familien Finantza Inkesta (2011).  
Geuk egina.

Euskadiko etxeetako aberastasun garbia 209.800 euroko erdiko balioa du, Estatuarekin alderatuz % 37 gehiago, azken horretan erdiko zenbatekoa 31.400 eurokoa baita.

## Azken gogoetak

Aurkeztutako datuetan ez da jasotzen 2008ko atzeraldi handiaren bigarren fasearen eragina. Atzeranzko bigarren uhin hori Euskadira atzerapenez iritsi zen Estatuarekin alderatuz 2012an (2014ko TGDI inkestako -joan den azaroan argitaratutako TGDI Txirotasuna Gizarte Premien Inkestan moduluaren aplikazioa (EDSS-ENS-2014)- emaitzek herritarren ondarea % 1,4 murriztu zela jasotzen dute).

---

<sup>5</sup> Kalkulua egiteko, Estatuko zorraren proportzio bera mantentzen da aktibo mota bakoitzean, Espainiako Bankuaren 2011ko Familien Finantza Inkestaren arabera.

Pentsioetako<sup>6</sup> BBVA institutuak egindako Espainiako pentsioei eta aurrezteko azturei buruzko 3. inkestaren arabera (2015eko urria), Euskadiko etheen % 59k beren diru-sarreraren zati bat aurreztean lortzen dute: hilean 292 euro batez beste. Aldi berean, pentsioen inguruan kezka eta ezagutzarik eza orokorra dagoela hautematen da. Gainera, % 66k uste duenez, bere bizi-maila eskasagoa izango da erretiroa hartzen duenetik aurrera, baldin eta soilik Gizarte Segurantzaren pentsioaz goza badezake.

Maila makro-ekonomikoan, EAEko familiako aurrezpen gordina familiaren errenta gordinaren % 12,8koa zen 2010ean<sup>7</sup>; 3,5 puntu jaitsi da azken 10 urtean. Galera horren ondorioz, EAE, zeinak Estatuarekin alderatuz gehiago aurrezten zuen, haren azpitik puntu bat baino gehiagoan dago orain; izan ere, Estatuan familiaren aurrezpena 1,1 puntu igo da 2000. urtetik, 2010ean familiaren errenta gordinaren % 14,12ra iritsi arte.

### **1.5. EAEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN AHALEGINA**

EAEko Administrazio Publikoek gizarte-segurtasunaren arloan ahalegin handia egiten dute, hiru bide baliatuz:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta.
- Pentsio ez kontributiboak.
- Gastu fiskalak.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean bizitzako oinarritzko beharrianak asetzeko nahiko baliabide ekonomikorik ez duten kontribuziozko zein ez kontribuziozko pentsioen hartzaileei Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta osagarri modura eskaintzeko aukera ezartzen da.

---

<sup>6</sup> <https://www.jubilaciondefuturo.es/es/blog/3-encuesta-sobre-las-pensiones-y-los-habitos-de-ahorro-en-espana.html>

<sup>7</sup> Funcasen arabera (2011): Eskualdeko balantza ekonomikoa (erkidegoak eta probintziak). 2000-2010 bitartean.

Horrenbestekoa da legeak kolektibo horiei eskaintzen dien babesa, ezen 9.2.a) artikuluan espresuki konfiguratzeko baita aparteko bizikidetzaren modura zahartzaro, ezintasun edo alarguntasuneko pentsio kontributiboak zein ez-kontributiboak jasotzen dituzten pertsonen osatutako hura.

Bizikidetzaren unitate bakoitzari aplikatu dakiokeen prestazioaren hileko zenbatekoa honen arabera kalkulatu da: eskatzailearen bizikidetzaren unitatearen ezaugarriak dituzten bizikidetzaren unitateentzat prestazioak bermatutako gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoaren eta eskatzailearen bizikidetzaren unitateak eskura dituen baliabideen arteko diferentziaren arabera.

- pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100.
- bi pertsonako bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 125.
- hiru pertsona edo gehiagoko bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 135.

Bermatutako gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoa ezin izango da, inola ere, urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 135 baino handiagoa izan.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzaileek etxebizitzako prestazio osagarria eskatzeko aukera gaineratu behar diogu aurreko prestazioari, prestazio horietako titular diren pertsonen etxebizitzarekin edo ohiko alojamenduarekin zerikusia duten beharrezkoak bete behar izatekotan; gehienez 250 euro gehiago dira hilean.

Lanbide Organismo Autonomoak kontzeptu horiengatik ordaindutakoaren xehetasuna 26. koadroan adierazten da.

## 26. koadroa: Diru-sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legearen osagarriak

(Mila euro)

	2013	2014
<b>Pentsiodunak</b>	<b>17.692</b>	<b>16.984</b>
<b>Urteko Zenbateko Nominala</b>	<b>45.453,17</b>	<b>44.759,62</b>

Iturria:Lanbide

Oharrak: - Pentsiodunei buruz emandako datuak 2013 eta 2014 urteen amaieran zeudenekin datoz bat, hurrenez hurren.

- Kolektibo horri dagokion urteko nominan Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren nahiz Etxebizitzako Prestazio Osagarriaren zenbatekoak sartzen dira.

Bestalde, Foru Aldundiek ezintasunaren edo erretiroaren ondoriozko kontribuziokoak ez diren pentsioak kudeatzen dituzte. Pentsio horri dagokion gehienezko zenbatekoa Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean finkatzen da urtero eta 2015erako 5.136,60 eurotan dago finkatua, osorik urteko.

Pentsioaren aitortzeko gutxienerako zenbatekoa, edozein kasutan, Estatuko Aurrekontu Orokorrek urtero finkatzen duten zenbatekoaren ehuneko 25ekoa izango da.

Kontribuziokoak ez diren pentsiodunentzako etxebizitzaren alokairurako osagarria urtean 525,00 euroko zenbatekoan dago finkatua.

27. koadroan hiru Foru Aldundiek egindako ordainketen bilakaera agertzen da.

## 27. koadroa: Kontribuziokoak ez diren prestazio ekonomikoak

(Miles de euros)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
<b>Pensión no contributiva de Jubilación</b>	18.972	18.926	19.328	20.783	21.720	22.869	23.194
<b>Pensión no contributiva de Invalidez</b>	25.744	26.652	27.774	28.995	29.267	32.289	32.933
<b>Prestaciones del Real Decreto 383/1984 (**)</b>	1.399	1.270	1.133	1.008	899	787	707
<b>SGIM-Subsidio de Garantía de Ingresos Mínimos</b>	1.314	1.194	1.068	950	847	741	663
<b>SATP- Subsidio por ayuda de tercera persona</b>	64	59	47	40	34	30	26
<b>SMGT-Subsidio de Movilidad y Compensación por Gastos de Transporte</b>	20	18	18	17	17	16	18
<b>TOTAL</b>	<b>49.522</b>	<b>50.128</b>	<b>51.378</b>	<b>53.803</b>	<b>54.797</b>	<b>58.744</b>	<b>59.554</b>

Fuente: Pensiones no contributivas de la Seguridad Social y Prestaciones sociales y económicas de la Seguridad Social. Subdirección General del Gestión del Inmerso. Área de Prestaciones Económicas.

(\*) El pago es efectuado por las Diputaciones Forales.

(\*\*) Real Decreto 383/1984, de 1 de febrero, por el que se establece y regula el sistema especial de prestaciones sociales y económicas previsto en la Ley de Integración Social de las personas con discapacidad (Lismi)

Los Subsidios de Garantía de Ingresos mínimos y de ayuda de tercera persona fueron suprimidos por la Disposición Transitoria Undécima del Real Decreto Legislativo 1/1994 por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social, manteniendo el derecho los beneficiarios que lo tenían reconocido.

Azkenik, gizarte-aurreikuspen osagarrira egindako ekarpenen ondorioz pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarrian izandako murrizketen bidez, Administrazio Publikoek (Gobernua eta aldundiak) oso zeregin garrantzitsua betetzen dute gizarte-segurtasunaren arloan.

Gastu fiskalak (prestazioei eta erreskateei dagokien bilketa kontuan izan gabe), hots, jasotzeari utzitako zerga arloko sarrerak, azken ekitaldietako aurrekontuetan sartuak (ikus 28. koadroa), horren adibide dira.

## 28. koadroa: PFEZ zergaren zerga-oinarrien murriztapenen ondoriozko gastu F

(Miles de euros)

AÑO	IMPORTE
2013	325.258
2014	274.708
2015	217.242

Fuente: Dirección de Presupuestos

2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014 urteetan aipatu zergaren zerga-oinarrietan egindako egiazko murrizketak, nahiz horiek kuotan izandako eraginak eta ordaindutako prestazioek kuotan izandako eraginak 29. koadroan erakusten dira.

**29. koadroa: Ekarpenak, prestazioak eta eraginak kuotan (eurotan)**

	CAE				
	2010	2011	2012	2013	2014
APORTACIONES SIST PREV SOCIAL: REDUCCIONES IRPF	1.201.653.065 €	1.158.506.249 €	823.114.064 €	812.363.706 €	649.835.376 €
PRESTACIONES SIST PREV SOCIAL: Δ BI IRPF	483.118.328 €	587.163.052 €	566.388.426 €	651.183.741 €	536.810.094 €
EFEECTO EN CUOTA REDUCCIONES	398.555.082 €	384.473.732 €	268.027.382 €	265.928.682 €	213.277.459 €
EFEECTO EN CUOTA PRESTACIONES	124.333.816 €	154.297.883 €	153.376.552 €	183.060.745 €	145.727.593 €
DIFERENCIA	<b>-274.221.266 €</b>	<b>-230.175.849 €</b>	<b>-114.650.830 €</b>	<b>-82.867.937 €</b>	<b>-67.549.866 €</b>

Iturria: Zerga Administrazioako Zuzendaritza

Ikus daitekeen moduan, ahalegin fiskal garbia, murriztuz badoa ere, oraindik adierazgarria da.

## 1.6. GIZARTE-AURREIKUSPEN OSAGARRIAREN SARKETA-MAILA

Erregistro fiskalek aukera ematen dute GAO gizarte-aurreikuspen osagarriaren sarketa-mailaren (ekarpenak egiten dituzten herritar deklaratuaren portzentaje modura ulertuta) eta horien banaketaren homogeneotasunaren inguruan lehen hurbilketa bat egiteko.

PFEZ zergaren gainean eskuragarri dauden azken estatistiken arabera, 2014ko ekitaldian, 650 milioi eurokoa izan zen (812 milioi euro 2013an) Euskadin gizarte-aurreikuspeneko sistemetara ekarpenak egitearen ondorioz zerga-oinarrian izandako murrizketaren bolumena, eta zergadunen % 31,9k egin zuten hori (2013an, % 34,9k), guztira 395.195 deklaratuzailek (2013an, 356.947k). Horrek, batez beste, 1.822 euroko ekarpen orokorra dakar (2013an, 2.055 euro) (ikus 30. koadroa).

Ekarpenen banaketa errenta-mailaren arabera aztertuta ikus daitekeenez, sarketa-maila oso ezberdina da, diru-sarrera gutxiago dituzten pertsonen kaltetan.

### 30. koadroa: Gizarte-aurreikuspen osagarrira egindako ekarpenen banaketa errenta-mailaren arabera Euskadin. 2014. urtea

Distribución por niveles de renta de las aportaciones a la previsión social complementaria en Euskadi. Año 2014								
Niveles de renta (Base Liquidable) (€)	Nº Declarantes	% Total	Nº Aportantes EPSV	% Total	Aportantes sobre declarantes (%)	Importe (miles €) Aportaciones EPSV	% Total	Aportación media (€)
<6.000	174.018	15,6	17.911	5,0	10,3	13.513	2,1	754
6.000-18.000	352.880	31,5	83.350	23,4	23,6	86.319	13,3	1036
18.000-30.000	313.885	28,1	111.319	31,2	35,5	169.890	26,1	1526
30.000-42.000	170.960	15,3	80.323	22,5	47,0	163.266	25,1	2033
42.000-54.000	51.050	4,6	29.333	8,2	57,5	80.732	12,4	2752
54.000-66.000	22.756	2,0	13.856	3,9	60,9	46.196	7,1	3334
66.000-90.000	19.196	1,7	12.088	3,4	63,0	47.281	7,3	3911
>90.000	13.882	1,2	8.767	2,5	63,2	43.016	6,6	4907
<b>TOTAL</b>	<b>1.118.627</b>	<b>100,0</b>	<b>356.947</b>	<b>100,0</b>	<b>31,9</b>	<b>650.214</b>	<b>100,0</b>	<b>1822</b>
<18.000	526.898	47,1	101.261	28,4	19,2	99.832	15,4	986
18.000-42.000	484.845	43,3	191.642	53,7	39,5	333.157	51,2	1738
42.000-66.000	73.806	6,6	43.189	12,1	58,5	126.928	19,5	2939
>66.000	33.078	3,0	20.855	5,8	63,0	90.297	13,9	4330

Iturria: Euskadiko Zerga-Kideketarako Saila. Datuen aurrerapena eta guk geuk egina.



Hauek dira 2013. urtean Gizarte-aurreikuspen osagarria egindako ekarpenen emaitzak:

- Deklaratzaileen ia erdiak, % 47,1, errenta-maila baxuetan metatzen dira, likidazio-oinarriaren 18.000 euro tara arte. Horien artean soilik % 19,2k egiten ditu 986 euroko batez besteko ekarpenak. Kolektibo horretan sartzen dira ekarpenak egiten dituzten guztien % 28,4, ekitaldiaren barruan aurreikuspen-plan osagarrietara egindako ekarpen guztiaren % 15,4 baino batzen ez dutenak.
- Ekarpenak egiten dituzten 18.000 eta 42.000 euro arteko likidazio-oinarriak dituzten zergadunen portzentajea % 39,5koa da, 1.738 euroko batez besteko ekarpen batekin. Sarketa-maila horrek bikoiztu egiten du aurreko taldearena eta batez besteko ekarpena ere bikoitza da. Talde horretan sartzen dira deklaratzailerik % 43,3, eta ekarpenak egiten dituztenen % 53,7 eta ekarpenen % 51,2 hartzen ditu.
- 42.000 eta 66.000 euro arteko errenta-tarteetan sarketa-maila % 60aren azpitikoa da. Batez besteko ekarpena % 69 areagotzen da aurreko taldearekin alderatuz, 2.938 eurora arte.
- Maila gorenetan, 66.000 eurotik gorako oinarrietan, deklaratzailerik bi herenek 4.300 eurotik gorako batez besteko ekarpenak egiten dituzte.
- Likidazio-oinarriaren 42.000 eurotik aurrerako errentak dituzte deklaratzailerik % 9k. Dena den, ekarpenak egiten dituztenen % 17,9 sartzen da hor eta ekitaldiko ekarpen guztien % 33,4.

Oro har, emaitzak eskasagoak dira 2013ko ekitaldikoekin alderatuz.

Puntu horretan ez da aiantzi behar errenta-eskalan gora egin ahala ekarpenak areagotzeaz gain etekin fiskala ere areagotu egiten dela, tasa marjinal gorakorrek dituzten zergaren progresibitatea dela medio.

Emaitzak Lurralde Historikoen arabera banakatuta, agerian geratzen dira enplegu-sistemetak abantailak gizarte-aurreikuspen osagarrien orokortzeari begira.

Gipuzkoan, Geroa Pentsioak EPSV Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea probintziako arloko hitzarmen askotan agertzen denez, enpleguaren aurreikuspenaren ezarpena oso zabala da, eta gizarte-aurreikuspen osagarriaren sarketa-maila askoz ere handiagoa eta orekatuagoa da.

Oro har, 2013an, Gipuzkoan ekarpenak egin zituzten deklaratzailerak % 40,9 izan ziren; Bizkaian, portzentaje hori % 28,4koa izan zen, eta, Araban, % 24,1koa (ikus 31. koadroa).

**31. koadroa: Gizarte-aurreikuspen osagarriaren sarketa errenta-mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2014. urtea**

<b>Penetración de la previsión social complementaria por niveles de renta y Territorio Histórico. Año 2014</b>			
Aportantes sobre declarantes (%)			
<b>Niveles de renta (Base Liquidable) (€)</b>	<b>Araba/Álava</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>Gipuzkoa</b>
<6.000	4,7	8,6	16,2
6.000-18.000	13,2	20,7	33,0
18.000-30.000	27,7	29,6	46,9
30.000-42.000	44,3	42,8	54,6
42.000-54.000	52,2	54,8	63,6
54.000-66.000	56,4	60,1	64,1
66.000-90.000	57,9	64,3	62,8
>90.000	59,4	64,2	62,5
<b>TOTAL</b>	<b>24,1</b>	<b>28,4</b>	<b>40,9</b>
<18.000	10,5	16,5	27,8
18.000-42.000	33,5	34,4	49,5
42.000-66.000	53,4	56,5	63,7
>66.000	58,4	64,2	62,7


Iturria: Euskadiko Zerga-Kideketarako Saila. Datuen aurrerapena eta guk geuk egina.

Errenta-mailetan erreparatuta, argi geratzen da gizarte-aurreikuspena errenta ertain eta baxuetara hedatzeari dagokionez arloko sistema kolektiboek duten garrantzia. Horrela, 18.000 eta 42.000 euro arteko errenta-tarteetan, Gipuzkoako batez besteko sarketa-maila (% 49,5) Araba eta Bizkaian baino 15 puntu handiagoa da; eta, errenta baxuko zergadunen artean, 18.000 eurotik beherako likidazio-inarrietan, ia % 28k Gipuzkoan egin zituen ekarpenak, Bizkaian baino 11 puntu gehiago (% 16,5) eta Araban erregistratutakoa baino hiru halako ia (% 10,5).

Sarketa-mailan lurraldeen arabera dauden aldeak gutxiagotu egiten dira errenta-mailak gora egin ahala. Horrela, 66.000 eurotik gorako tarteetan Bizkaian maila hori handiagoa da.

Gizarte-aurreikuspen osagarriaren hedapenaren bilakaerari dagokionez, aurreikuspen-sistematan ekarpenak egiten dituzten deklaratuzaileen proportzioak etengabe egin zuen gora ekonomia-hezkundearen fasean zehar, % 46 inguruan kokatzeraino 2008an abiatutako Atzeraldi Handiaren aurreko urteetan. Azken urte hartan ekarpenak egin zituztenen kopuruak goia jo zuen, 517.456 ekarpen-egilerekin (ikus 1. grafikoa).

**1. grafikoa: Ekarpen-egileen / deklaratuzaileen erlazioaren bilakaera Euskadin. 1999-2014**



Iturria: Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratua eta geuk egina.

Krisia lehertu ondotik, Gizarte-aurreikuspen osagarriaren sarketa-mailak beherantz egin zuen apurka 2011. urtera arte. Ondoren, 2012an, defizit publikoa zuzentzeko asmoz 2012, 2013 eta 2014 ekitaldietan zehar sektore patronal publiko osoari ezarritako ekarpenen etetea gaineratu behar zaio enplegua suntsitzeko prozesu orokorrari, eta sarketa-maila 10 puntu jaitsi zen, % 31,9an kokatu zen arte.

2014ko ekitaldiari dagozkion emaitza fiskal berrienen ondorioz, ekarpenak egiten dituzten zergadunen portzentajea 1999ko mailaz azpitikoa zen.



## 2. GIZARTE-AURREIKUSPEN OSAGARRIA EUSKADIN ETORKIZUNEAN. AURRERA BEGIRAKO AZTERKETA

### 2.1. DEMOGRAFIA

#### **Biztanleria-proiekzioak, 2026ra begira.**

1985ean Euskadiko biztanleriaren atzeranzko dinamika bat erregistratu zen, jaiotza-tasa oso baxuek eta migrazio-saldo negatiboek eraginda. Joera irauli egin zen mende honetako lehen urteetan. Izan ere, jaiotza-tasa igo egin zen apurka, eta, ondorioz, hazkunde begetatiboa berreskuratu egin zen, zeina balio negatiboetan baitzegoen,<sup>8</sup> eta, horrez gain, etorkin asko etorri zen eta, horren ondorioz, migrazio-saldoaren zentzua irauli zen<sup>9</sup>; urte horietako hazkunde demografikoa azaltzen duen faktore nagusia da hori. Hazkunde-aro horrek biztanleriaren maximo historikoa ekarri zuen 2012an, 2.181.590 biztanlerekin.

Hamaika urte etengabe hazi ostean, EAEko biztanleriak behera egin zuen 2013an eta 2014an, 2015eko hastapenean erregistratu ziren 2.173.000 biztanleetara iritsi arte.

Eustat erakundeak 2014an eraturako Proiekzio Demografikoek 2026. urtera begira iragartzen dutenez, EAEn bizi den biztanleriak behera egingo du modu iraunkorrean hurrengo hamar urteetan, 2026. urtean mendearen hastapenean erregistratutakoaren antzeko biztanleria izateraino. Era berean, areagotu egingo da biztanleriaren zahartze-prozesua, bai biztanleria-piramidearen oinarrian, bai gailurrean.


Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoak 2026. urtearen hasieran 2.077.000 biztanle izango dituela uste da (ikus 2. grafikoa), % 48,3 gizonak eta % 51,7 emakumeak. Horrek 100.000 pertsona inguru galtzea esan nahi du, hots, biztanleriak % 4,5 inguru egingo luke behera.

---

<sup>8</sup> Eustatek egindako *Jaiotza-tasen eta heriotza-tasen estatistikaren* arabera, 2004. urtean jaiotza-kopurua handiagoa izan zen heriotza-kopurua baino lehendabizikoz, 1989. urteaz geroztik.

<sup>9</sup> *Migrazio-mugimenduen Estatistikak*, zeina Eustat erakundeak 1988az geroztik eratzen baitu, lehen saldo positiboa erregistratu zuen 2000. urtean: irten zirenak baino 2.560 etorkin gehiago sartu ziren.

## 2. grafikoa: Euskadiko biztanleriaren bilakaera eta proiektzioa. 1982-2026



Iturria: Eustat. Adierazle Demografikoak, Biztanleen Udal Estatistika eta Proiektzio Demografikoak 2026. Biztanleria urtarrilaren 1ean.

Biztanleriarekin lotuta aurreikusten den bilakaeran, saldo negatiboak batuko dira hazkunde demografikoaren bi osagaietan, bai naturalean (jaiotza-tasa ken heriotza-tasa), bai migrazioan (immigrazioak ken emigrazioak). Hazkunde naturalak gero eta zenbaki negatiboagoak izango ditu, heriotza-tasaren igoerak eraginda, gero eta zaharragoa den biztanleria batetik eratorrita, eta jaiotza-tasaren jaitsiera nabarmenaren ondorioz; izan ere, adin emankorretan dauden emakumeen kopuruak behera egingo du. Proiektatutako epealdi osoan 50.000 pertsona baino zertxobait gehiagoko saldo begetatibo negatiboa izatea aurreikusten da, eta azken urteetan 6.000 pertsona baino gehiago galtzea. Migrazio-saldoaren araberako biztanleria ere antzeko neurrian murriztuko dela uste da, hots, 51.000 biztanle inguru 2026. urtera arte. Haatik, eta saldo naturalaren beheranzko joera linealean ez bezala, proiektatutako epealdiaren amaieran migrazio-saldoa berriro ere positiboa izango dela aurreikusten da, baina oso txikia eta ez jaiotza-tasaren beherakada bortitza orekatzeko nahikoa<sup>10</sup>.

---


<sup>10</sup> Edozein kasutan, gauza jakina da migrazioen inguruan aurreikuspen zehatzak egitea zaila dela; bereziki, EA Eren moduko biztanleria txiki batean. Izan ere, faktore askok dute eragina, zeinak oso zailak baitira aurrez ikusteko; esate baterako, fluxuak arautzeko arazko alderdiek zein jomugako eta jatorriko eremuen ingurune sozioekonomikoak (langabezia-maila, bizi-baldintzak, hondamendiak, gudak, jazarpen politikoak, erlijioak, etnikoak, eta abar).

Jaiotza-tasari dagokionez, ugalkortasuna emakumeko 1,5 seme-alaba izateraino igoko dela espero da. Dena den, jaiotzen kopuruak modu adierazgarrian egingo du behera; izan ere, 25-39 urte bitarteko adina duen emakumeen biztanleria, ugalketaren % 85 inguru hartzen duen adin-tartea, % 40 jaitsiko da 2013-2026 bitartean. Gainera, adin emankorretan dauden pertsona gutxiz osatutako belaunaldien presentzia proiektzio-epealditik harago luzatuko da, eta, beraz, ez da ikusten jaiotza-mailak modu adierazgarrian igoko direnik luzera begira ere.

Bestalde, biztanleriaren bizi-luzetasunak aurrera egiten jarraituko luke. Jaiotzean bizi-itzaropena 82,6 urtekoa izango da gizonen kasuan eta 88,4koa emakumeen kasuan 2025ean. Horrek esan nahi du horretan aurrera egiten dela 2011ko balioekin alderatuz: 3,4 eta 2,7 urte gehiago, hurrenez hurren. Modu horretan, emakume eta gizonen bizi-itzaropenen arteko aldeak 6,5 urtetik (2011n) 5,8 urtera (2025ean) egingo du behera. 65 urteko bizi-itzaropenari dagokionez aurreikusten denez, iguripenak % 14 areagotuko dira gizonen kasuan eta % 10 emakumeen kasuan, 2025ean 20,9 eta 25,5 urteetara iritsiz, hurrenez hurren.

Adierazitako joera horien guztien ondorioz, adinaren arabera espero den bilakaerak agerian uzten du Euskadiko biztanlerian zahartze-prozesua areagotu egin dela (ikus 4. grafikoa). Fenomeno hori laburbiltzeko, esan daiteke biztanleriaren batez besteko adinak 3,5 urte egingo duela gora 2013-2026 bitartean, 44 urtetik 47,5 urtera, eta Euskadiko biztanleriaren ia erdiak 50 urte edo gehiago izango ditu 2026an.

#### 4. grafikoa: Euskadiko biztanleria-piramidearen aldaketa. 2013-2026



**Oharra:** eremu grisa gehi gorria da 2013ko piramidea, eta eremu grisa gehi urdina 2026ko piramideari dagokio. Beraz, eremu gorriak norbanakoen defizita islatzen du 2026an 2013. urtearekin alderatuz, eta urdinak superabita.

Iturria: Eustat. Proiekzio demografikoak 2026.

Adin-multzo handien bilakaerari dagokionez<sup>11</sup>, 15 urtetik beherako biztanleriak, 2015ean eta 2016an 305.000 norbanakora iritsi ostean, behera egingo du, 2026an 266.000 pertsona izan arte, hots, 35.000 adin txikiko baino gehiago galduko da, % 12 inguru 2013. urtearekin alderatuz. Zenbaki erlatiboetan, kolektibo horrek nabarmen galduko du garrantzia 2020. urtetik aurrera, 2026an biztanleria osoaren % 12,8 izatera pasatuz, 2013an baino puntu bat gutxiago.

Bestalde, laneko adinean den biztanleriak (15-64 urte bitartean) jaitsiera iraunkorreko joera bat erakusten du epealdi osoan, 2026. urtera arte 177.000 pertsona galduz, hots, % 12ko erorketa 2013. urtearekin alderatuz. Biztanleria osoan izango duen garrantzia bost puntu baino gehiagoan murriztuko da, hots, 2013an % 66koa zen eta 2026an % 60,6koa izango da. Talde horren barnean, 35-49 urte bitarteko pertsona kopuruak % 26 egingo du behera (141.000 pertsona gutxiago), eta 50-64 urte bitarteko biztanleriak % 9 egingo du gora (ia 41.000 pertsona gehiago).

<sup>11</sup> Europako kohorteak hartzen dira biztanleria aktiboari dagokionez alderagarri izate aldera. Modu horretan, 15-64 urte bitarteko taldea jotzen da laneko adinean den edo potentzialki aktiboa den biztanleria.



Piramidearen goialdean, 65 urte edo gehiagoko biztanleriak goranzko joerarekin jarraituko du, eta 112.000 pertsona gehiago izango dira, % 25 baino gehiago. Horrela, 2013an % 20,2ko garrantzia zuenak 2026an % 26,6koa izango du. Hau da, hurrengo hamarkadaren erdialdera Euskadiko biztanleriaren laurdenak baino gehiagok 65 urte edo gehiago izango ditu. Guztizko igoera horretatik, 32.000 pertsona 85 urte edo gehiagokoen taldera igaroko lirateke eta talde hori % 50 handituko litzateke, eta pertsona guztien % 4,6 izango litzateke.

### 32. koadroa: Proiekzio demografikoak: Euskadiko biztanleria-egituraren bilakaera 2013-2026

	0-14		15-64		≥65		Tasa de dependencia (15-64) (%)	
	miles	%	miles	%	miles	%	$(P_{0-14} + P_{65+})/P_{15-64}$	$P_{65+}/P_{15-64}$
<b>2013</b>	301,4	13,8	1.437,4	66,0	440,1	20,2	51,6	30,6
<b>2015</b>	305,4	14,1	1.406,4	64,8	458,5	21,1	54,3	32,6
<b>2020</b>	295,8	13,9	1.333,5	62,8	494,7	23,3	59,3	37,1
<b>2026</b>	265,9	12,8	1.260,0	60,6	552,0	26,6	64,9	43,8

Iturria: Biztanleen Udal Errolda 2013 eta Eustat erakundearen Proiekzio Demografikoak 2026 eta geuk egina.

Mendekotasun-tasa<sup>12</sup> 13 puntu baino gehiago igoko da, 2013ko % 51,6tik 2026ko %64,9ra (ikus 32. koadroa). Horrek esan nahi du 2013an mendeko pertsona bakoitzak laneko adinean den 1,9 pertsona izatetik 2026an 1,5 izatera igaroko garela (tasa iraulia edo aktibo/pasibo erlazioa).

65 urte edo gehiagoko biztanleriaren mendekotasun-tasa (64 urtetik gorako biztanleriaren eta 15-64 urte bitarteko biztanleriaren koizientea, portzentajea) % 30,6tik % 43,8ra igaroko litzateke proiektatutako epealdian, hots, 65 urte edo gehiagoko pertsona bakoitzeko potentzialki aktiboak diren 3,3 pertsona izatetik 2,3 pertsona izatera, pertsona bat gutxiago hamahiru urtean soilik.

### 2050eko egoera eta Europako testuingurua

Joan den hamarkadaren hasieran, Eustat erakundeak zazpi egoera demografiko aurreikusi zituen 2050aren horizontea ipinita, emankortasunaren, heriotza-tasaren eta migrazioen bilakaerarekin lotutako hainbat hipotesi konbinatuz. Horien artean, 2026ko biztanleriaren proiektio berrietako emaitzak epe luzera luzatzeko neurrira hobekien egokitzen dena hirugarren egoera da. Bertan

<sup>12</sup> Mendekotasun-tasa 15 urtetik beherako edo 64 urtetik gorako biztanleriaren (potentzialki ez aktiboak) eta 15-64 urte bitarteko biztanleriaren (potentzialki aktiboak) arteko koiziente modura kalkulatu da, ehunekotan emanda.

2025etik aurrera eta 2050. urtera arte, Euskadin biztanleriak beherakada lineal txiki bat izatea aurreikusten da, % 1,7koa. Joera hori proiektioetara eramanda, 2025erako proiektatutako biztanleriari Eustat erakundearen 3. egoeratik abiatuta eskuratutako bariazio-tasak aplikatzeak ekarriko luke 35.000 pertsona gutxiago egongo liratekeela 2050. urtean, 2.048.000 pertsonako biztanleria osoan.

Estimazio horietan oinarrituta (2026 proiektioak + Eustat erakundearen 2050. urterako 3. egoera), Euskadiko demografian epe ertain eta luzera espero den bilakaera Europako testuinguruan kokatu eta bere eragin alderatuaren lehen neurri bat emateko, modu laburtuan hurbil gaitezke aurretiaz zehaztutako mendekotasun-tasen bidez.

### 33. koadroa: Mendekotasun-tasa (%)

	2013	2025	2050
<b>EB</b>	51	60	76
<b>Espainia</b>	50	55	87
<b>Euskadi</b>	52	64	95

Iturria: Biztanleen Udal Estatistika 2013, Eustat erakundearen Proiektio Demografikoak 2026 eta Agertoki Demografikoak 2050 (3 zenbakidun egoera hipotetikoa), Eustat, European Commission "The 2015 Ageing Report" eta geuk egina.

Euskadiko mendekotasun-tasa 2013an (% 52), Europako batezbestekoan badago ere, dagoeneko Espainiakoa baino 2 puntu handiagoa zen, 65 urteko eta gehiagoko biztanleriaren portzentajea handiagoa delako. Tasa hori % 64raino igoko litzateke Euskadin 2025ean, Europar Batasuneko baino 4 puntu handiagoa eta Espainiakoa baino 9 handiagoa; izan ere, adin nagusikoen taldearen garrantziak 6 puntu egingo luke gora eta potentzialki aktiboa den biztanleriaren garrantziak 5 puntu egingo luke behera. 2050. urtean bat eta bateko harremana izango genuke potentzialki aktiboak direnen eta potentzialki ez-aktiboak direnean artean (laneko adinean den pertsona bat mendeko pertsona bakoitzeko) Euskadin, % 95eko tasa batekin. Horrela, Espainiarekiko (% 87) aldea 8 puntutan mantenduko litzateke eta Europar Batasunaren portzentajea (% 76) 19 puntutan gaitzuko litzateke, gehienbat adin nagusikoen taldean 9 puntutik gorako aldea egongo litzatekeelako (ikus 33. koadroa).

### 34. koadroa: 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren mendekotasun-tasa (%)

	2013	2025	2050
<b>EB</b>	28	36	50
<b>Espainia</b>	27	35	62
<b>Euskadi</b>	31	43	73

Iturria: Biztanleen Udal Estatistika 2013, Eustat erakundearen Proiekzio Demografikoak 2026 eta Agertoki Demografikoak 2050 (3 zenbakidun egoera hipotetikoa), Eustat, European Commission "The 2015 Ageing Report" eta geuk egina.

Adin nagusikoen mendekotasun-tasa % 43ra igoko litzateke Euskadin 2025ean, 2013. urtetik 12 puntu igo ostean. Ratio hori Europar Batasuneko eta Espainiakoa baino 8 eta 9 puntu handiago da, hurrenez hurren, eta 2050ean % 73ko portzentajea kokatuko litzateke, Espainian baino 11 puntu gehiago eta Europako batezbestekoa baino 20 puntu gehiago (ikus 34. koadroa).

2013-2050eko epealdiko biztanleriaren egiturazko bilakaera aurkezten da 35. koadroan.

### 35. koadroa: Egituraren bilakaera alderatua adinaren arabera. 2013-2050 (%)

	2013			2025			2050		
	0-14	15-64	65+	0-14	15-64	65+	0-14	15-64	65+
<b>EB</b>	15,6	66,0	18,4	15,2	62,6	22,2	15,0	56,9	28,2
<b>Espainia</b>	15,2	66,9	17,9	12,9	64,7	22,4	13,3	53,4	33,3
<b>Euskadi</b>	13,8	66,0	20,2	13,0	61,0	26,0	11,4	51,2	37,4

Iturria: Biztanleen Udal Estatistika 2013, Eustat erakundearen Proiekzio Demografikoak 2026 eta Agertoki Demografikoak 2050 (3 zenbakidun egoera hipotetikoa), Eustat, European Commission "The 2015 Ageing Report" eta geuk egina.

## 2.2. LAN-MERKATUA EUSKADIN DATOZEN HAMARKADETAN

Pentsioen etorkizunaren ikerketari helduz, lan-merkatuaren azterketa epe luzerako denborazko egoera batean planteatu behar da, hau da, hurrengo hamarkadetan izango diren aldagai nagusiak zehaztu behar dira.

Euskadiko lan-merkatuaren proiektzioa Europar Batzordeak estatu kide ezberdinetarako eta, zehazkiago, Espainiarako egindako proiektzioetan oinarrituko da, hiru urtean behin eratzen den Ageing Report 2015 txostenaren esparruan. Epe luzerako finantza publikoen iraunkortasuna babeste aldera, txosten honetan biztanleriaren zahartasunarekin lotutako gastu publikoko proiektzioak egiten dira, gastu publikoko bost kategoria bereiziz: pentsioak, osasuna, iraupen luzeko zaintzak, hezkuntza eta langabezia. Horretarako, politika ekonomikoan aldaketarik ez dagoela dioen hipotesia hartzen dute oinarritzat. Bosgarren txosten horretan epe luzerako proiektzioak eskaintzen dira (2060. urtera arte), biztanleriaren zahartasunaren eragin ekonomikoaren unea eta tamaina zehazteko adierazle modura baliagarri direnak.

### Jarduera-tasen bilakaera

Azken hamarkadetan aldaketa handiak izan dira lan-merkatuarekin lotutako partaidetzan –batez ere, gazteen, emakumeen eta adin nagusikoaren artean–, hainbat faktoreren ondorioz (gizarte arlokoak, demografikoak, instituzionalak eta ekonomikoak), zeinek jarduera-tasan eragin handia izan baitute:

- Gazteen (15-24 urte) jarduera-tasak behera egin du, funtsean eskolaratzea areagotu egin delako.
- Emakumeen jarduera-tasa nabarmen areagotu da azken 25 urteetan, gizarte-aldaketen isla gisa.
- 25-54 urte bitarteko gizonen jarduera-tasak, % 90 ingurukoak, handienak dira talde guztietan erregistratzen direnen artean. 55-64 urte bitarteko gizonen jarduera-tasek, zeinek azken 25 urteetan behera egin baitute, joera aldetiko aldaketa-zantzuak erakusten dituzte herrialde gehienetan, pentsioen sistemetan izandako aldaketen ondorioz batez ere, erretiroaren adina igoz.

2013an, Euskadiko jarduera-tasa potentzialki aktiboa zen biztanleriaren % 74,1ekoa zen, Espainian bezalakoa eta Europako batezbestekoa (% 71,9) baino zertxobait handiagoa.

Gizonen jarduera-tasa % 79,2ra igotzen da eta emakumeena 10 puntu baxuagoa da (ikus 36. koadroa), nahiz eta lan-merkatuan sartu diren emakumeen tasa nabarmen hazi den eta Euskadiko emakumeen jarduera-tasa Europar Batasuneko batezbestekoaren gainetik kokatu den.

Adinaren araberako jarduera-tasari dagokionez, nabarmendu behar da Euskadiko gazteen artean tasa apalagoa dela (% 29,5) eta aldea adierazgarria dela hala Espainiarekin alderatuz (% 37,9) nola Europar Batasuneko batezbestekoarekin alderatuz (% 42,4). Izan ere, Euskadiko gazteek denbora gehiago ematen dute hezkuntza-sisteman, eskola uzte goiztiarraren tasak baxuagoak baitira eta, era berean, hirugarren mailako ikasketak dituzten gazteen portzentajea handiagoa baita.

### 36. koadroa: 15-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasen bilakaera

	2005	2010	2013
<b>GUZTIRA</b>			
Espainia	69,7	73,4	74,0
Eurogunea	69,9	71,4	72,2
Europar Batasuna	69,7	70,9	71,9
Euskadi	69,3	71,6	74,1
<b>GIZONAK</b>			
Espainia	80,9	80,7	79,7
Eurogunea	78,2	78,2	78,2
Europar Batasuna	77,3	77,5	78,0
Euskadi	79,5	78,9	79,2
<b>EMAKUMEAK</b>			
Espainia	58,3	65,9	68,2
Eurogunea	61,7	64,6	66,2
Europar Batasuna	62,2	64,3	65,9
Euskadi	59,0	64,3	69,0

**Oharra:** Euskadin 16-64 urte bitarteko biztanleriaren jarduera-tasa da.

Iturria: European Commission "The 2015 Ageing Report" eta Eustat, PRA.

Tarteko adinetan, gizonen tasek potentzialki aktiboa den biztanleriaren % 90 gainditzen dute, eta, emakumeen kasuan, % 80 portzentajea gainditu da dagoeneko, eta sexuen arteko aldea apurka murriztuz doa.

55-64 urte bitarteko biztanleriaren erdia, gutxi gorabehera, biztanleria aktiboaren barnean dago, gizonen kasuan % 60ko portzentajea gaindituz eta portzentaje askoz ere apalagoa izanik emakumeen kasuan (% 45 ingurukoa). Dena den, talde horretan ere, azken urteotan alde hori murriztuz joan da.

### **Proiekzioetako emaitza nagusiak<sup>13</sup>**

#### *Jarduera-tasen estimazioa*

Lan egiteko adinean den biztanleria (potenzialki aktiboa) urriagoa izango da datozen hamarkadetan; izan ere, erretiroa hartzen dutenen multzoak handiagoak dira lan-merkatuan sartzen diren gazteen multzoak baino. Euskadin jaitsiera bereziki azpimarragarria izango da: % 10ekoa 2014-2025 bitartean<sup>14</sup>, eta % 17,3koa 2025 eta 2050 bitartean<sup>15</sup>, Espainiako merkatuan baino askoz ere nabarmenagoa; izan ere, azken horretan, % 6,7 jaitsiko da 2025era arte eta % 16,2 jaitsiko da 2025-2050 bitartean, eta baita Europakoan baino nabarmenagoa ere, bertan jaitsiera % 3,6koa izango baita lehen epealdian eta % 7,8koa bigarren tartean, 2050. urtera arte.

Proiekzioetako emaitza jarduera-tasaren igoera batean islatzen da: Europar Batasunean igoera 2 puntukoa izango da 2050era arte (% 74,7) eta Euskadin, Espainian bezalaxe, bikoitza, 2050ean % 79 inguruko portzentajearen kokatuz (ikus 37. koadroa).

Igoera hori, batez ere, emakumeen eta adin nagusikoen artean gertatuko da, lan-merkatuan sartzen diren emakume gazteen belaunaldien igoera eta pentsio-sistemetan gauzatutako erreformen ondorioz espero den efektua konbinatuta.

Genero aldetiko aldea, jarduera-tasari gagozkiola, estutu egingo da epealdian zehar. Europa mailan alde hori 11 puntutik 8 puntura jaitsiko da, eta Euskadin alde hori desagertu egingo da epe luzean.

---

<sup>13</sup> Euskadiri dagozkion datuak, 2025. urtera arte, biztanleriaren proiektzioen bidez eskuratu dira. 2030-2050 bitarteko datuak eskuratzeko, 2025eko jarduera-tasari Eustat erakundearen 3 zenbakidun egoera demografikotik abiatuz eskuratutako tasetan izandako bariazioak aplikatu zaizkio.

<sup>14</sup> Eustat. Biztanleria-proiektzioak, 2026.

<sup>15</sup> Eustat. Agertoki demografikoak 2050. 3. egoera hipotetikoa.

Adin nagusiaren (25-54 urte) jarduera tasan 2015-2050 bitartean ia aldaketarik izango ez den arren, sexuaren arabera joeren emaitza kontrakoa da: emakumeen tasen igoera eta gizonen tasen jaitsiera apala.

Beren pentsio-sistema berritu duten herrialde gehienetan adin handieneko (55-64 urte) taldeetako jarduera-tasan inpaktu adierazgarria izatea espero da. Europar Batasunean langile horien jarduera-tasa 13 puntu igoko da. Euskadin eragina handiagoa izango da, 24 puntu ingurukoa.

### 37. koadroa: 15-64 urte bitarteko biztanleriaren jarduera-tasaren proiektzioak, sexuaren arabera

	2015	2020	2025	2030	2040	2050
<b>GUZTIRA</b>						
Espainia	75,1	76,5	77,2	78,2	79,6	79,5
Eurogunea	72,7	73,6	74,0	74,2	74,7	74,5
Europar Batasuna	72,5	73,6	73,9	74,0	74,5	74,7
Euskadi	74,3	75,5	76,1	77,4	78,4	78,6
<b>GIZONAK</b>						
Espainia	79,8	79,5	78,9	79,2	79,9	80,1
Eurogunea	78,3	78,5	78,4	78,2	78,2	78,0
Europar Batasuna	78,2	78,7	78,6	78,3	78,4	78,5
Euskadi	78,3	77,7	77,0	77,4	77,7	77,8
<b>EMAKUMEAK</b>						
Espainia	70,2	73,5	75,4	77,2	79,3	78,9
Eurogunea	67,1	68,7	69,5	70,1	71,0	70,9
Europar Batasuna	66,8	68,4	69,1	69,6	70,4	70,7
Euskadi	70,2	73,3	75,3	77,3	79,1	79,4

Iturria: European Comission "The 2015 Ageing Report" eta geuk egina.

Adin nagusikoen jarduera-tasaren igoera emakumeen kasuan gertatuko da nagusiki; izan ere, horien Europako tasa 18 puntu igoko da, eta, gizonena, berriz, 8 puntu. Euskadin igoera hori are handiagoa izango da: 35 puntu emakumezkoen kasuan, eta 13 gizonetzkoen kasuan.

Pentsio-sistemaren berrikuntzen eragina Estatuan 3,9 puntukoa da jarduera-tasa osoan 2040an, 55-64 urte bitarteko langileen kasuan 14,9 puntukoa izanik.

Adierazi behar da jarduera-tasa osoak tarteko adinaren (25-54 urte) jarduera-tasan gertatzen diren aldaketen barruan daudela funtsean. Horrenbestez, adin nagusikoen jarduera-tasetan gertatzen diren igoera nabarmenek eragin mugatua izango dute tasa osoetan. Horrela, 2050era arte adin nagusikoen jarduera-tasan izango den 24 puntuko igoerak Euskadin tasa osoa soilik 4 puntu igotzea ekarriko du.

**38. koadroa: 15-64 urte bitarteko biztanleriaren jarduera-tasen proiektzioak, adin-taldearen arabera.**

	2015	2020	2025	2030	2040	2050
<b>15etik 24 urtera. Guztira</b>						
Espainia	37,3	35,6	35,9	38,5	39,3	37,5
Eurogunea	41,2	40,9	40,4	40,8	41,2	40,6
Europar Batasuna	42,6	42,1	41,2	42,0	42,8	42,5
Euskadi	28,9	27,3	27,5	30,1	30,9	29,1
<b>25etik eta 54 urtera. Guztira</b>						
Espainia	87,7	89,0	89,7	89,8	89,5	89,7
Eurogunea	85,7	86,1	86,1	86,1	85,8	85,8
Europar Batasuna	85,5	85,8	85,9	85,9	85,7	85,9
Euskadi	88,1	89,4	90,1	90,2	89,9	90,1
<b>55 urtetik 64 urtera. Guztira</b>						
Espainia	58,1	67,8	74,5	79,4	81,8	81,8
Eurogunea	57,1	63,3	67,3	69,0	70,8	70,4
Europar Batasuna	56,6	62,2	66,1	67,6	69,5	69,7
Euskadi	57,8	67,5	74,2	79,1	81,5	81,4
<b>55 urtetik 64 urtera. Emakumeak</b>						
Espainia	50,3	63,2	71,9	78,4	84,4	84,7
Eurogunea	50,0	57,2	61,8	64,4	68,4	68,0
Europar Batasuna	49,0	55,5	60,1	62,6	66,2	66,7
Euskadi	49,9	62,8	71,5	78,0	84,0	84,3

Iturria: European Comission "The 2015 Ageing Report" eta geuk egina.



### *Egiturazko langabeziari buruzko hipotesia*

Ageing Report 2015 txostenean arau orokor modura zehazten da langabezia-tasek NAWRU tasa bateratzen dutela<sup>16</sup> eta azken horrek herrialdeen arabera balio espezifiko batzuetara, bateratzea 2040an osatuz. Balio espezifiko horiek % 6,6koak dira hala Europar Batasunarentzat nola eurogunearentzat. Espainia eta Euskadirentzat, aldiz, % 7,5koa da balio hori (ikus 39. koadroa).

#### **39. koadroa: NAWRU tasaren bilakaera. 2015-2050**

	<b>2015</b>	<b>2020</b>	<b>2025</b>	<b>2030</b>	<b>2040</b>	<b>2050</b>
Espainia	24,0	19,5	15,0	12,3	7,5	7,5
Eurogunea	10,2	9,2	8,4	7,7	6,6	6,6
Europar Batasuna	11,4	10,0	8,9	8,1	6,6	6,6
Euskadi	15,4	11,8	9,7	8,9	7,5	7,5

Iturria: European Commission "The 2015 Ageing Report" eta geuk egina.

### *Enpleguaren proiektzioak*

Europako metodologia horren arabera, enplegua hondar-aldagai bat da, biztanleriaren proiektzioen, etorkizuneko jarduera-tasen eta langabeziaren hipotesien arabera zehazten dena. Euskadin, enplegu-tasa 10 puntu igoko da 2050era arte, eurogunekoa ia bikoiztuz; izan ere, jarduera-tasa gehiago haziko da eta langabezia-tasa modu nabariagoan murriztu. Estatuan enplegu-tasa are gehiago haziko da, 17 puntu, langabeziaren jaitsiera nabariak eraginda (ikus 40. koadroa).

#### **40. koadroa: Enplegu-tasa (15-64 urte)**

	<b>2015</b>	<b>2020</b>	<b>2025</b>	<b>2030</b>	<b>2040</b>	<b>2050</b>
Espainia	57,0	61,6	65,6	68,5	73,7	73,5
Eurogunea	64,3	66,2	67,4	68,2	69,8	69,5
Europar Batasuna	65,1	66,8	67,7	68,3	69,6	69,7
Euskadi	62,9	66,6	68,8	70,4	72,5	72,7

Iturria: European Commission "The 2015 Ageing Report" eta geuk egina.

---

<sup>16</sup> Langabezia-tasa naturala

### *Mendekotasun ekonomikoaren tasa*

Mendekotasun ekonomikoaren tasa orokorra guztira egoera ez-aktiboan dagoen biztanleriaren eta lanean dagoen biztanleriaren artean dagoen koefiziente modura kalkulatu da (kasu honetan 15-64 urte bitarteko adin-tartean). Adierazle horrek langile bakoitzak batez beste mantendu behar duen pertsona kopuruaren neurri bat ematen du. Hurrengo hamarkadaren erdialdera arte % 135ean egonkortzea espero da Europar Batasunean, eta, ondoren, % 152ra igotzea 2050ean. Espainiaren kasuan, 2015eko % 165etik 2030eko % 132ra murriztuko da, eta gero % 155era igoko da 2050ean (ikus 41. koadroa).

#### **41. koadroa: Mendekotasun ekonomikoaren tasa (15-64 urte)**

	<b>2015</b>	<b>2020</b>	<b>2025</b>	<b>2030</b>	<b>2040</b>	<b>2050</b>
Espainia	165	148	136	132	138	155
Eurogunea	139	137	138	142	150	155
Europar Batasuna	135	134	136	140	146	152
Euskadi	147	141	140	141	154	168

Iturria: European Commission "The 2015 Ageing Report" eta geuk egina.

Hasiera batean, Euskadin, mendekotasun ekonomikoaren tasa Europako mailen artean dago. Espainiako tasaren kasuan, % 25etik gorako langabezia-tasa batekin, mendekotasun-tasa modu nabarian igotzen da. Epealdiaren amaieran, Euskadiko mendekotasun-tasan gertatzen den igoera askoz ere handiagoa da gainerako ekonomiekin alderatuz; izan ere, Euskadiko biztanleriaren zahartasuna Espainian eta Europan baino handiagoa da, 41. koadroan ikus daitekeen moduan.

Hirugarren adineko mendekotasun ekonomikoaren tasa zahartasunak gastu publikoan duen eraginaren adierazle garrantzitsua da. Adierazlea 65 urtetik gorakoen eta lanean den biztanleen arteko ratio gisa kalkulatu da. Hasiera batetik, adin nagusikoen mendekotasuna handiagoa da Euskadin, eta, gainera, ratio hori gainerako ekonomietan baino gehiago igoko da: 46 puntu 2050era arte; Espainian, 36 puntu igoko da, eta, Europar Batasunean, 26 puntu (ikus 42. koadroa). Euskadin hirugarren adinaren mendekotasuna mendekotasun guztiaren heren bat islatzetik % 60 inguruan kokatzen pasako da. Europan, aldiz, ez da erdira iritsiko (Estatuan % 55ekoa 2050ean). Hori Euskadiko biztanleriaren piramideko banaketaren isla baino ez da, non 2050ean 65 urtetik gorakoa

izango den bertako biztanleriaren % 37, eta portzentaje hori Europan % 28koa izango da (Espainian heren bat).

#### 42. koadroa: Hirugarren adinaren mendekotasun ekonomikoaren tasa

	2015	2020	2025	2030	2040	2050
Espainia	49	50	53	59	74	85
Eurogunea	47	50	55	61	71	75
Europar Batasuna	45	48	52	58	66	71
Euskadi	52	56	62	69	85	98

Iturria: European Comission "The 2015 Ageing Report" eta geuk egina.

### 2.3. PENSIO PUBLIKOEN BERRIKUNTZA ESTATUAN

Pentsioen sistema publikoko azken berrikuntzak sistemaren aurrekontu-iraunkortasuna bermatzeko mekanismo bat ekarri du: pentsioen doikuntza automatikoa. Pentsioei buruzko lege berriak mekanismo hori arautzen du, bi doikuntza-koefizientetan oinarrituta egongo dena: pentsioen iraunkortasun-faktorea (IF) eta errebalorizazio-indizea (EI). Lehenengoaren bidez, erretiro-pentsio berriak bizi-itxaropenaren hazkundearen arabera doitzen dira, eta, EI indizearekin, pentsio guztien urteko doikuntza zein izan behar den zehazten da.

Pentsatzekoa da berrikuntzatik eratorritako aldaketa guztiek aldaketak eragingo dituztela ordezkapen-tasetan.

#### 2.3.1. Erretiro-pentsioaren iraunkortasuna-faktorea

Iraunkortasun-faktorea tresna bat da, Gizarte Segurantzako sistemaren erretiro-pentsioen zenbatekoa pentsiodunen bizi-itxaropenaren bilakaeraren arabera automatikoki kalkulatzen duena egoera antzekoetan baina erretiroa denbora-une ezberdinetan hartzen dutenen zenbatekoa doitzuz.

Lege honek egiten duen arauketan, iraunkortasun-faktoreak erretiroko hasierako pentsioa doitzen du, halako moduan non pentsiodun batek urte jakin batzuk barru pentsio-sistemara sartzen denetik aurrera jasoko duen guztizko zenbatekoa –eta uste izatekoa denez bizi-itxaropen luzeagoa izango duela– aurreko une batean erretiroa hartu zuen pertsonak jasotzen duenaren baliokidea izatea nahi da. Horretarako, bi uneetan kalkulatutako bizi-itxaropenaren balioak lotu dira.

Horren xedea sistemara egindako kontribuzioen eta espero diren prestazioen arteko proportzionaltasuna mantentzea da. Faktore horrek bizitza luzatzeari lotutako arriskua estaltzen du eta belaunaldien arteko ekitatea doitzen, erretiro-pentsioei baino eragiten ez badie ere.

Bizi-luzetasuna pixkanaka luzatu egin denez, sistemaren belaunaldi arteko ekitatea desorekatu egin da; izan ere, belaunaldi berriek urte gehiago bizi direnez, sistemaren aldetik etekin gehiago eskuratzen dituzte aurreko belaunaldiek baino. Jasotako etekinen alde hori garrantzitsua izan daiteke; izan ere, esate baterako, gaur egun 65 urtetan bizi-itxaropena 20 urtekoa da eta 2050ean 25 urtekoa izango da.

Iraunkortasun-faktorearekin hasierako pentsioa doitzeak bizi osoan zehar pentsioetan jasotako etekina belaunaldiz belaunaldi berdintzera dakar. Modu horretan, bizi-luzetasuna luzatzearen ondorioz belaunaldien arteko banaketan sartu den 'bidegabekeria' zuzenduz.

Iraunkortasun-faktorea behin bakarrik aplikatuko da, Gizarte Segurantzako sistemaren erretiro-pentsio berrien hasierako zenbatekoa ezartzeko.

Iraunkortasun-faktorea kalkulatzeko, 67 urteko adina hartuko da kontuan erreferentziazko adin modura. Bost urteko epealdiak erabiliko dira bizi-itxaropenaren bilakaera zehazteko.

Iraunkortasun-faktorea 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ematen diren erretiro-pentsioetan aplikatuko da, hasierako pentsioa 2018. urtekoarekin alderatuz murriztuz, bizi-itxaropena igotzen den proportzioan.

*Kalkulatzeko formula.*

Iraunkortasun-faktorearen formulazio matematikoa hau da:

$$IF_t = IF_{t-1} * e_{67}^*$$

Non:

IF = Iraunkortasun-faktorea lau hamarrenekin

$IF_{2018} = 1$

t = Faktorea aplikatzen den urtea; 2019tik aurrerako balioak hartuko ditu.

$e_{67}^*$  = Bost urtean behin kalkulatzen den balio honek 67 urte izatean dagoen bizi-itxaropenaren urtetik urterako aldaketa irudikatzen du, bost urtean behin. Berau kalkulatzeko, Gizarte Segurantzako sistemaren erretiro-pentsiodun herritarren heriotza-taulak hartuko dira kontuan.

Kalkulatzeko formula honako hau izango da  $e_{67}^*$  bost urteko aldi bakoitzean:

2019-2023 bitartean, biak barne, iraunkortasun-faktorea kalkulatzeko,  $e_{67}^*$  balioa hartuko du, non zenbakitzailea 2012an zen 67 urterekiko bizi-itxaropena izango den eta izendatzailea 2017an 67 urterekin izango den bizi-itxaropena.

$$\left[ \frac{e_{67}^{2012}}{e_{67}^{2017}} \right]^{\frac{1}{5}}$$

2024-2028 bitartean, biak barne, iraunkortasun-faktorea kalkulatzeko,  $e_{67}^*$  balioa hartuko du, non zenbakitzailea 2017an 67 urterekin egongo den bizi-itxaropena izango den eta izendatzailea, berriz, 2022an 67 urterekin izango den bizi-itxaropena.

$$\left[ \frac{e_{67}^{2017}}{e_{67}^{2022}} \right]^{\frac{1}{5}}$$

Haren funtzionamendua irudikatzeko *Adituen Batzordeak pentsioetako sistema publikoko iraunkortasun-faktoreari buruz egindako txostenean (2013ko ekaina)* agertzen diren bizi-itxaropenari dagozkion balioak erabili dira, 203/2013 Legearen ezaugarrietara egokituz (epealdia 2012. urtetik areagotzea eta bizi-itxaropena 67 urterekin).

Bizi-itxaropena 67 urte betetzean:

	<b>e<sub>67</sub></b>
2012	17,97
2013	18,12
2014	18,27
2015	18,42
2016	18,56
2017	18,71
2018	18,85
2019	19,00
2020	19,14
2021	19,28
2022	19,42
2023	19,56

Balioa  $e_{67}^{2012-2017}$  2019-2023ko epealdirako:  $e_{67}^{2012-2017} = \left[ \frac{e_{67}^{2012}}{e_{67}^{2017}} \right]^{\frac{1}{5}} = \left[ \frac{17,97}{18,71} \right]^{\frac{1}{5}} = 0,9920$

$IF_{2019} = IF_{2018} * e_{67}^{2012-2017} = 1 * 0,9920 = 0,9920$

$IF_{2020} = IF_{2019} * e_{67}^{2012-2017} = 0,9920 * 0,9920 = 0,9841$

$IF_{2021} = IF_{2020} * e_{67}^{2012-2017} = 0,9841 * 0,9920 = 0,9762$

$IF_{2022} = IF_{2021} * e_{67}^{2012-2017} = 0,9762 * 0,9920 = 0,9684$

$IF_{2023} = IF_{2022} * e_{67}^{2012-2017} = 0,9684 * 0,9920 = 0,9607$

Balioa  $e_{67}^{2017-2022}$  2024-2028ko epealdirako:  $e_{67}^{2017-2022} = \left[ \frac{e_{67}^{2017}}{e_{67}^{2022}} \right]^{\frac{1}{5}} = \left[ \frac{18,71}{19,42} \right]^{\frac{1}{5}} = 0,9926$

$IF_{2024} = IF_{2023} * e_{67}^{2017-2022} = 0,9607 * 0,9926 = 0,9536$

$IF_{2025} = IF_{2024} * e_{67}^{2017-2022} = 0,9536 * 0,9926 = 0,9465$

$IF_{2026} = IF_{2025} * e_{67}^{2017-2022} = 0,9465 * 0,9926 = 0,9395$

$IF_{2027} = IF_{2026} * e_{67}^{2017-2022} = 0,9395 * 0,9926 = 0,9325$

$IF_{2028} = IF_{2027} * e_{67}^{2017-2022} = 0,9325 * 0,9926 = 0,9256$

2019an 67 urterekin erretiroa hartzen duten pentsiodunentzat, IF faktoreak hau ekarriko luke: dagokien hasierako hileko pentsioa, egungo arauen arabera, 2018an 0,9920 zenbakiarekin biderkatzea; hau da, honekin biderkatzea: 2012an zen 67 urterekiko bizi-itxaropena (17,97; 18 urte gutxi gorabehera) 2017an 67 urterekin izango luketen bizi-itxaropenarekin (18,71; 18 urte eta bederatzi hilabete, gutxi gorabehera) zatitzearen emaitza. 2020an 67 urterekin erretiroa hartzen duen pentsiodunarentzat, berriz, IF faktoreak hau ekarriko luke: dagokion hasierako hileko pentsioa, egungo arauen arabera, 2018an 0,9841 zenbakiarekin biderkatzea.

2024an 67 urterekin erretiroa hartzen dutenentzat, IF faktoreak dagokien hasierako hileko pentsioa, egungo arauen arabera, 2018an 0,9536 zenbakiarekin biderkatzea esan nahiko luke, hau da, honekin biderkatzea: 2023ko pentsioa 2017an 67 urterekiko bizi-itxaropenaren (18,71; 18 urte eta bederatzi hilabete, gutxi gorabehera) eta 2022an 67 urterekin izango lukeen bizi-itxaropenaren koefizientearekin (19,42; 19 urte eta bost hilabete, gutxi gorabehera) biderkatzearen emaitza.

Faktoreak gradualtasun-elementu garrantzitsu bat barneratzen du. Kasu honetan, 10 urtean hasierako pentsioa % 7,5 jaisten da.

IF faktorea aplikatzeak bere oinarri arautzailearekiko murriztuz joango den pentsio bat sorrarazten du. Horrenbestez, hasierako pentsioaren zenbateko osoa oinarri arautzailearen baitakoa izango da (kotizatutako urte kopurua, hazkunde ekonomikoa, eta abar).

### 2.3.2. Pentsioen errebalorizazio-indizea.

Gizarte Segurantzako pentsioak (ordaindutakoaren arabera pentsioetan), gutxieneko pentsioaren zenbatekoa barne, urte bakoitzaren hasieran igoko dira, unean uneko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitako errebalorizazio-indizearen arabera.

23/2013 Legeak EI indizea arautzen du, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera 1997. urtetik aplikatzen zen erreferentziazko indizea (kontsumoko prezioen indizea (KPI)) ordezkatu duena. Pentsioetako EI horren helburua pentsio-sistemaren finantza-iraunkortasuna mantentzea da.

EI indizeak berekin dakar pentsio guztiak tasa baten arabera igotzea, kontuan hartuz diru-sarreraren eta pentsio kopuruaren igoera, ordezkapen-efektua (urtero sisteman sartzen diren pentsiodunak irteten direnek zituzten pentsioez bestelako pentsio batzuekin sartzen baitira) eta ziklo ekonomikoan zehar diru-sarrera eta gastuen artean dagoen aldea. Horrela adierazten da matematikoki:

$$EI_{t+1} = \bar{g}_{l,t+1} - \bar{g}_{p,t+1} - \bar{g}_{s,t+1} + \alpha \left[ \frac{I_{t+1}^* - G_{t+1}^*}{G_{t+1}^*} \right]$$

Non:

EI = Erretiro-pentsioen errebalorizazio-indizea, lau hamartarrekin adierazia.

t+1 = Errebalorizazioa kalkulatu den urtea.

$\bar{g}_{l,t+1}$  = t+1 Gizarte Segurantzako sistemaren diru-sarreraren aldaketa-tasaren hamaika balioen batezbesteko mugikor aritmetikoa, t+1 balioan zentratua eta bateko hainbestean adierazia.

$\bar{g}_{p,t+1}$  = t+1 Gizarte Segurantzako sistemaren kotizaziopeko pentsioen aldaketa-tasaren hamaika balioen batezbesteko mugikor aritmetikoa, t+1 balioan zentratua eta bateko hainbestean adierazia.

$\bar{g}_{s,t+1}$  = Ordezkapen-efektuaren hamaika balioen batezbesteko mugikor aritmetikoa, t+1 balioan zentratua eta bateko hainbestean adierazia. Ordezpen-efektua errebalorizaziorik egon ez den urte batean, urte horretan sistemaren batezbesteko erretiro-pentsioen urtetik urterako aldaketa da.



$I^*_{t+1} = t+1$  Gizarte Segurantzako sistemaren diru-sarreraren zenbatekoaren hamaika balioen batezbesteko mugikor geometrikoa,  $t+1$  balioan zentratua.

$G^*_{t+1} =$  Gizarte Segurantzako sistemaren gastuen zenbatekoaren hamaika balioen batezbesteko mugikor geometrikoa,  $t+1$  balioan zentratua.

$\alpha = 0,25$  eta  $0,33$  arteko balioa hartuko duen parametro bat. Parametroaren balioa bost urtean behin berrikusiko da.

Aldagai guztiak termino nominaletan zehaztuta agertzen dira.

Pentsioen errebalorizazioak unean uneko egoeren eragina izan ez dezan, El indizea hamaika urteko balioen batezbestekoarekin kalkulatzen da, ziklo ekonomikoa osorik hartzeko, eta, desoreka gertatzen bada, zuzendu daiteke, ez kolpetik, baizik eta hainbat urtetan zehar. Asmo horrekin, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak horiek kalkulatzeko beharrezkoak diren aldagai makro-ekonomikoen aurreikuspenak emango ditu.

Adierazpen matematikoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da eragiketa ez-finantzarioengatiko sistemaren diru-sarreraren eta gastu agregatuaren guztizkoa (Gizarte Segurantzaren Aurrekontuen 1etik 7ra bitarteko kapituluak gastuetan eta 1etik 7ra bitartekoak irabazietan), legean zehazten diren partida jakin batzuk kenduz.

$\alpha$  koefizienteak sistemako aurrekontu-desorekak zuzentzeko abiadura neurtzen du.  $\alpha$  koefizientearen hautaketa, noski, nahi den doikuntza-erritmoaren araberakoa da. Baldin eta  $\alpha = 1/3$ , urte bakoitzean diru-sarreraren eta gastuen artean dagoen desorekaren heren bat zuzenduko da. Modu horretan, lehenengo urtean hasierako desorekaren  $1/3$  zuzenduko da, eta  $2/3$  geratuko dira. Bigarren urtean geratzen diren  $2/3$  horien  $1/3$  zuzenduko da, eta hirugarren urtean gainerako  $4/9$  horien  $1/3$  zuzenduko da. Horrenbestez, adibide horretan, hiru urtean hasierako desorekaren % 70 inguru zuzenduko da. Lehenengo bost urtean  $\alpha$  parametroaren balioa  $0,25$  izango da.

A parametroaren balioak kontuan hartuz, EI indizearen formularen parentesi artean dagoen terminoak adierazten du sistema superabitean dagoenean ( $I^* > G^*$ ) pentsioak diru-sarreraren hazkunde-tasatik gora errealizatuko direla, pentsioena kenduta eta ordezkapen-efektua ( ) kenduta. Aitzitik, defizitean dagoenean ( $I^* < G^*$ ) pentsioak azpitik errealizatuko dira. Urtero aplikatutako EI indizeak zera bermatzen du, pentsioetan egiten den gastua sistemako diru-sarrerak baino tasa apalagoan haztea egungoaren moduko egoera defizitario batean, eta, modu horretan pentsioetako aurrekontu-defizita murriztuz joango da pixkanaka, unean-unean aurrekontu-oreka lortu arte. Bi kasuetan, legeak errealizazio-indizeagatiko doikuntzarako mugak ezartzen ditu. Zehazki, lortzen den emaitzak ez du inola ere eragingo pentsioen urteko hazkundera ehuneko 0,25 baino baxuagoa izatea, ez eta t urteko abenduaren aurreko urtebeteko aldiaren kontsumoko prezioen indizeak izandako portzentaje-aldaketa gehi ehuneko 0,50 baino altuagoa ere.

EI indizeak inflazioan oinarritutako errealizazio-arauak baino faktore gehiago ditu kontuan; izan ere, pentsioen hazkundera, prezioen hazkunderaren arabera izateaz gain, beste zenbait aldagaien baitan egotea dakar, zeinak funtsezkoak baitira sistemaren aurrekontu-oreka ziurtatzeko. Diru-sarreraren hazkunde nominala banakatzen badugu ( $\bar{g}_i$ ) prezioen hazkunderaren ( $\pi$ ) eta diru-sarreraren hazkunde errealean artean ( $\bar{g}_r$ ), erraz ikus daiteke nola, EI indizearen formularen, inflazioa aintzatesteko elementuetako bat bilakatzen den, baina ez da bakarra:

EI indizea horrela idatz daiteke:

$$g_{t+1} = \pi_{t+1} + (\bar{g}_r - \bar{g}_p - \bar{g}_s) + \alpha \left[ \frac{I_{t+1}^* - G_{t+1}^*}{G_{t+1}^*} \right]$$

Adierazpen hori erabiliz, pentsioetako errealizazioa hiru elementuren arteko batura modura banaka daiteke:

1. batez besteko inflazioa,
2. sistemako baliabideen hazkunde erreala ken pentsio kopuruaren igoera, eta kontuan hartuz ordezkapen-efektua, eta
3. sistemako superabit- edo defizit-efektua.

Argi dago sistema orekan badago ( $I^*=G^*$ ) eta diru-sarreraren hazkunde erreala pentsio kopuruaren gehi ordezkapen-efektuaren neurri berekoa edo handiagoa bada, orduan pentsioen errebalorizazioa inflazioaren batez besteko tasaren parekoa edo handiagoa izango dela. Horrela, bada, EI indizea aurreko errebalorizazio-araua baino zabalagoa da; izan ere, pentsioak askotariko faktoreek eraginda igotzea dakar: soldaten hazkundera, kotizazio-oinarrietako hobekuntzak, laneko produktibitate handiagoa (soldata handiagotan islatzen dena), enplegu-tasa handiagoak, pentsio-sistemaren beraren eraginkortasun handiagoa, ezkutuko ekonomiaren murrizketa edo diru-sarrerak etengabe igotzeko erabakiak.

Pentsioen doikuntzak KPI indizetik askatzeak berekin ekarriko du pentsioen erosteko ahalmena murriztea diru-sarreraren hazkundera urria eta biztanleriaren zahartasuna nabarmenagoa den egoera honetan. Bestalde, oparotasun ekonomikoko garaian pentsioa KPI indizearen gaitetik handitu daiteke.

### **2.3.3. Iraunkortasun-faktorea eta errebalorizazio-indizea elkarrekin aintzatetsita**

Komeni da nabarmentzea IF faktoreak baduela eragina urteko EI indizearen balioan eta haren eraginak berdindu egiten direla. Erretirodun berrien hasierako pentsioa IF faktorea aplikatzearen ondorioz oinarri arautzailearekiko murrizteak aukera ematen du batez besteko pentsioaren urteko errebalorizazioa handiagoa izateko, erretirodun berrien pentsioetako gastua lehengo pentsiodunen artean birbanatuz, IF faktorea aplikatzen ez duen egoerarekin alderatuz. IF faktorea aplikatuko ez balitz, erretirodun berrien hasierako pentsioa handiagoa izango litzateke. Horrenbestez, gastua ere handiagoa izango litzateke. Modu horretan, EI indizea aplikatzeak pentsioen igoera apalagoa izango luke ondorio.

Alderantziz, erretirodun berrien bizi-itxaropena murrizteak IF indize handiagoa izango luke ondorio eta, beraz, urteko EI indizearen tasa apalago bat. Beste hitz batzuetan esanda, bi faktore horien aplikazioak horietako bakarra aplikatzearekin lotutako desorekak konpentsatzea du xede, horien ezaugarriak kontuan hartuz.

Edozein kasutan, errebalorizazio-indizea baldintzatzen duten lau faktoreetako bi, egiturazko defizita eta pentsiodun kopurua, negatiboak dira argi eta garbi. Bestalde, pentsio berrien balioaren hazkundera, zeinak amaitzen direnak baino % 20 handiagoak baitira, nekez geldiaraziko da

iraunkortasun-faktorearekin, zenbait hamarkadatan bederen. Ondorioz, aintzat hartu behar da errebalorizazio-indizea, edo haren gabezia, baldin eta hazkunde ekonomiko oso handiak izaten ez badira, faktore modura gehituko zaiola pentsio publikoen murrizketari. Eguneratzeari buruzko araudi horrek, gainera, badu oztopo bat, hots, kalte berezia eragiten duela adin aurreratuetan, pertsonek erreakzionatzeko ahalmen gutxiago dutenean.

### 2.3.4. Ordezkapen-tasa

Ordezkapen-tasa (batez besteko pentsioa / batez besteko soldata) bi faktoreren baitakoa da:

$$\frac{\text{Batez besteko pentsioa}}{\text{Batez besteko soldata}} = \frac{\text{Gizarte Segurantzako Prestazioak}}{\text{Pentsiodunak}} : \frac{\text{Soldata-errentak guztira}}{\text{Landunak (kotizatzen dutenak)}}$$

Bestela esateko:

$$\frac{\text{Batez besteko pentsioa}}{\text{Batez besteko soldata}} = \frac{\text{Landunak (afiliatuak)}}{\text{Pentsiodunak}} \times \frac{\text{Gizarte Segurantzako Prestazioak}}{\text{Soldata-errentak guztira}}$$

Aurrekontu-orekako egoera bat suposatuz eta, horrenbestez, prestazioak Gizarte Segurantzako sistemako diru-sarrerekin bat datozela suposatuz, ekuazioko bigarren terminoak portzentaje nahiko egonkorra islatzen du eta, horrenbestez, ordezkapen-tasaren bilakaera horietako lehenaren baitan egongo da funtsean eta, zehazki, kotizatzen duen landunaren baitan.

Bilakaera demografikoagatik beragatik, pentsiodun kopuruaren estimazioa nahikoa fidagarria da. Haatik, kotizatzaile kopuruaren bilakaera askoz ere zehaztugabeagoa da, ekonomiaren hazkunde-tasen arabera, zeintzuk, era berean, epe luzera aurreikusten oso zailak diren faktore ugarien baitakoak diren. Baina argi dago egungo okupazio-tasa modu nabarmenean areagotu beharko dela sistemaren iraunkortasuna ziurtatzeko.

Ordezkapen-tasak, kontzeptu modura zailtasunik ez duenak, hainbat aldagai ditu hura kalkulatu edo argitaratzen duen iturriaren arabera. Horrela, Pentsioetako BBVA Instituturako ikerketa baten arabera (Herce 2015), Espainian ordezkapen-tasa, egungotik hurbil legokeena, % 85,1koa litzateke. Haatik, urteko batez besteko pentsioaren eta oinarri arautzailearen (egiazko soldatarekin zehatz-

mehatz bat ez datorrena) arteko erlazio modura dago kalkulatua. Euskadirako datu hori % 92,1ekoa da, funtsean produktibitate handiago bat dela medio eta, ondorioz, batez besteko soldata handiagoak eta, jakina, kotizazio-oinarri handiagoa.

ELGA (Pensions at a glance 2013) erakundeak Espainiarako % 73,9ko batez besteko datu bat argitaratzen du, lan-merkatura 2012an sartzen den langile baten lan-bitzza oso baterako kalkulatuta. Aurrera begirako datu bat da, zalantzarik gabe. ELGA erakunde osorako datu baliokidea % 54,4koa da.

Proiekzio demografikoei eta pentsioetako aurreikuspenei buruzko Europar Batzordearen ikerketaren arabera<sup>17</sup>, zehazki, hartako zenbakiek zera adierazten dute:

Additional indicators	Ch 13-60	2013	2020	2025	2030	2035	2040	2045	2050	2055	2060
Public pensions, net/Public pensions, gross, %	0.0%	92.8%	92.8%	92.8%	92.8%	92.8%	92.8%	92.8%	92.8%	92.8%	92.8%
Pensioners (Public, in 1000 persons)	5170	8992	9819	10553	11433	12616	13787	14757	15133	14843	14162
Pensioners aged 65+ (1000 persons)	5690	7044	7903	8652	9565	10765	12009	13189	13726	13468	12735
Share of pensioners below age 65 as % of all pensioners	-11.6%	21.7%	19.5%	18.0%	16.3%	14.7%	12.9%	10.6%	9.3%	9.3%	10.1%
Benefit ratio (Public pensions)	-19.9	59.7	58.3	55.2	51.3	47.8	45.0	42.5	40.2	38.5	39.8
Gross replacement rate at retirement (Public pensions)	-30.4	79.0	73.6	66.1	60.6	58.3	56.1	53.6	51.7	49.9	48.6
Average accrual rates (new pensions, earnings related)	-0.7	2.3	2.1	1.9	1.7	1.7	1.7	1.6	1.6	1.6	1.6
Average contributory period (new pensions, earnings-related)	3.2	36.6	37.7	38.5	38.9	39.0	39.1	39.2	39.4	39.6	39.7
Contributors (Public pensions, in 1000 persons)	1732.2	17185.5	18603.4	19367.5	19662.0	19668.8	19328.8	18550.7	18176.9	18371.3	18917.7
Support ratio (contributors/100 pensioners, Public pensions)	-57.5	191.1	189.5	183.5	172.0	155.9	140.2	125.7	120.1	123.8	133.6

Horrela, ordezkapen-ratioari dagokionez, hura jaitsi egiten da: 2013an, % 79koa zen, eta, 2060an, % 48,6koa izango da. Edozein kasutan, dagoeneko aurreikusten da 2035ean hasierako estalduraren % 20 baino gehiago galdua legokeela. Hori guztiori baliozkoa da gehieneko pentsioaren mugen barruan dauden soldaten kasuan; izan ere, ordezkapen-ratioa batez besteko soldataren arabera kalkulatu da erretirorako sarbidean, eta hura 2013an, punturik gorenean, hots, 55-59 urte bitarteko adin-tartean, 27.406 eurokoa zen<sup>18</sup>. Horrenbestez, ondorioztatu behar da datu horiek guztiek ez dutela aipatutako gehieneko pentsio horren eragina jasotzen. Ildo horretatik, ELGA erakundeak, beste metodologia batekin, ratio horiek kalkulatu ditu hainbat soldata-mailatarako. Haatik, hemen ez da hala gertatzen eta kontuan hartu behar da egungo 35.000 eurotik gorako soldaten ordezkapen-ratioa baxuagoa izango dela.

<sup>17</sup> Europako Batzordea. The 2015 Ageing Report. Economic and budgetary projections for the 28 EU Member States (2013-2060). [http://europa.eu/epc/pdf/ageing\\_report\\_2015\\_en.pdf](http://europa.eu/epc/pdf/ageing_report_2015_en.pdf)

<sup>18</sup> Soldaten Egiturari buruzko Urteko Inkesta. 2013 urtea. EIN.

Prestazioen ratioa (batez besteko erretiroa batez besteko soldataren gainean) % 59,7tik % 39,8ra jaisten da eta modu motelagoan murrizten da. Bestela esanda, erretiroa hartutako pertsona baten batez besteko pentsioa batez besteko soldataren % 40 izango da, 2013an 22.698 eurokoa zena. Espainian prestazioen ratio txikiago horren, ordezkapen-ratioarekin alderatuz, egiturazko arrazoia zera da, pentsioen errebalorizazioa txikiagoa dela soldatenekin alderatuz, zeintzuek, inflazioaz gain, irabazien zati bat epe luzerako produktibitate modura jasotzen baitute. Edozein kasutan, ratio hori ordezkapeneko bano gutxiago murrizteak adierazten du produktibitatearen ondorioz espero diren irabaziak ez direla bereziki adierazgarriak.


Horrela, ikuspegi guztietatik so, banaketa-sistema publikoko ordezkapen-tasak asko murriztuko direla dirudi, hainbeste ezen erretiro-aroan diren pertsonen bizi-kalitatea modu adierazgarrian galduko baita edo, are, txirotasun-mailaren azpira igaro daitezke aurrezki gehigarririk ez badute. Horrela, Adituen Batzordeak 2013ko ekainaren 7an Iraunkortasun-faktoreari buruz eraturako txostenean ebaluatzen denez, bizi-iguripena areagotzearen ondorioz Belaunaldi arteko Ekitate Faktoreak eraginda prestazioak beherantz zuzentzearen zati bat % 20koa izango da lau hamarkadetan.

#### **2.4. GIZARTE SEGURANTZAKO ERRESERBA FUNTSA**

Gizarte Segurantzako Erreserba Funttsaren zenbatekoa 2015eko abenduaren 31n 32.481 milioi eurokoa da eskurapen-prezioan (merkatu-balioak 35.035 milioiko zenbatekoa adierazten du), PBGaren % 3,00aren baliokide. Azken lau urteetan egindako ordainketen ondorioz Funtsa 2006ko mailetara murriztu da, 2011. urtearen amaieran metatuta zeuden 66.815 milioiko kopurua erdia baino gutxiagoan utziz (ikus 5. grafikoa).

## 5. grafikoa: Erreserba Funtzaren bilakaera (eskurapen-prezio osoan)

Milioi eurotan



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Gizarte Segurantzako Erreserba Funtzari buruzko txostena 2015.

Krisialdian zehar lana modu masiboan suntsitzearen ondorioz, gizarte-kotizazioek behera egin zuten. Horri gaineratu behar zaizkio kontrataziorako laguntzarako kuotetan izandako murrizketak, autonomoentzako tarifa lauak, eta kontratazio berriak soldata baxuagoekin egiten direla eta horrek aldi berean kotizazio apalagoak egitea dakarrela. Horren guztiorren ondorioz, azken zazpi urteetan, soilik 2010ean, baliabideen ekarpen bakarra zegoen Erreserba Funtsera eginda, Gizarte Segurantzako aurrekontuen soberakinen kargura.

Jadanik 2012an hazkunde-garaian Funtsean aurreztutakora jo behar izan zen kotizaziopeko pentsioak ordaindu ahal izateko. Gainera, institutu publikoaren defizit handia ikusita, Estatuko Exekutiboak Erreserba Funtsean erabiltzeko zegoen muga kendu egin zuen 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietarako, zeina kotizaziopeko pentsioari dagokion gastuaren eta hura kudeatzeko beharrezkoak diren gainerako gastuen (urte bakoitzean 3.000 milioi euro inguru) baturaren %3an finkatuta baitzegoen<sup>19</sup>. Horrela, aipatutako ekitaldietan Gizarte Segurantzako Erakunde Kudeatzaileen eta Zerbitzu Erkideen aurrekontuen likidazio-aurreikuspenak agerian jartzeko finantza

---

<sup>19</sup> Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtza arautzen duen irailaren 29ko 28/2003 Legeko 4. artikulua.

arlokoak ez diren eragiketen ondoriozko defizitaren zenbatekoaren baliokidea den gehieneko zenbatekoa erabil zitekeen<sup>20</sup>.

Estatuko Aurrekontu Nagusien Legeak (EAN), 2015erako, bi urte luzatu zuen, 2016ra arte, Funtsean erabiltzeko % 3ko muga ez aplikatzeko manua.

Finean, azken lau ekitaldietan pentsioen funtsetik guztira 47.200 milioi euro atera dira, neurri batean Funtsearen aktiboen zorroak sorrarazitako errendimenduak (12.062 milioi) konpentsatuak epealdi berean (ikus 43. koadroa).

### 43. koadroa: Erreserba Funtsearen Bilakaera: zuzkidurak, erabiliak eta errendimenduak.

Egoera epealdiaren amaieran milioi-eurotan

Datos Anuales/Acumulados		2000 a 2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1. Dotaciones	Anual	25.198	7.542	8.410	9.520	80	1.809	223	226	197	279	103
	Acumulado	25.198	32.740	41.150	50.670	50.750	52.559	52.782	53.008	53.205	53.484	53.587
1.a. Acuerdo del Consejo de Ministros*	Anual	25.173	7.500	8.300	9.400		1.740					
	Acumulado	25.173	32.673	40.973	50.373	50.373	52.113	52.113	52.113	52.113	52.113	52.113
1.b. Excedente de Mutuas**	Anual	25	42	110	120	80	69	223	226	197	279	103
	Acumulado	25	67	177	297	377	446	669	895	1.092	1.371	1.474
2. Disposiciones	Anual								7.003	11.648	15.300	13.250
	Acumulado								7.003	18.651	33.951	47.201
3. Rendimientos Netos***	Anual	1.987	1.152	1.427	1.987	2.719	2.544	2.217	2.970	2.187	2.911	3.994
	Acumulado	1.987	3.139	4.566	6.553	9.272	11.816	14.033	17.003	19.190	22.101	26.095
<b>TOTAL (1-2+3)</b>	<b>Anual</b>	<b>27.185</b>	<b>8.694</b>	<b>9.837</b>	<b>11.507</b>	<b>2.799</b>	<b>4.353</b>	<b>2.440</b>	<b>-3.807</b>	<b>-9.264</b>	<b>-12.110</b>	<b>-9.153</b>
	<b>Acumulado</b>	<b>27.185</b>	<b>35.879</b>	<b>45.716</b>	<b>57.223</b>	<b>60.022</b>	<b>64.375</b>	<b>66.815</b>	<b>63.008</b>	<b>53.744</b>	<b>41.634</b>	<b>32.481</b>

\* Gizarte Segurantzako Erakunde Kudeatzaileen eta Zerbitzu Erkideen aurrekontuen soberakinen kargura.

\*\* Gertakari arruntek eragindako aldi baterako ezintasunari dagokion prestazioa Gizarte Segurantzarekin Elkarlanean Dihar duten Mutuek kudeatzetik eratorria.

\*\*\* Kontu korronteko interesak, aktiboen errendimenduak, besterentzeko eragiketen emaitzak, bestelako diru-sarrerak eta aktiboen amortizazio/besterentzearen ondoriozko doikuntzak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Gizarte Segurantzako Erreserba Funtseari buruzko txostena 2015.


2000. urtean onartutako Erreserba Funtsearen lehen zuzkidura egin zenetik 2015eko abenduaren 31ra bitartean, hark sorrarazitako errendimendu garbiak 26.091 milioi eurorenak dira. Funtse sortu zenetik urtean metatutako batez besteko errentagarritasuna % 4,79koa da (5,06 % 2014ko

<sup>20</sup> Gizarte Segurantzako sistemaren sendotze- eta berrmatze-neurriei buruzko azaroaren 30eko 28/2012 Errege Lege Dekretuko lehen xedapen gehigarria.



abenduaren 31ra arte), eta urteko errentagarritasuna % 1,05era arte jaitsi da 2015ean (ikus 6. grafikoa).

#### 6. grafikoa: Erreserba-funtsaren urteko errentagarritasuna (%)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Gizarte Segurantzako Erreserba Funtzari buruzko txostena 2015.

Aktiboen zorroaren osaerari dagokionez, Gizarte Segurantzak zorroan Europako zorraren tituluak murrizteko joera amaitu zuen 2014an, defizit publiko handiak finantzatzeko premiak eragindakoa. 2007an, Europako tituluak Funtseko inbertsioen erdiak ziren. Baina, 2014ko abenduaren 31n, Erreserba Funtzaren % 100 dagoeneko Espainiako zor publikoan inbertitua zegoen, eta eskusibotasun hori 2015ean mantendu egin zen<sup>21</sup>.

Badirudi Erreserba Funtzera jotzeko joerari eutsi egingo zaiola datozen urteetan. Aukera hori, adierazi den moduan, iragarri egiten zuten 2015eko Estatuko Aurrekontu Nagusiek 2016ko ekitaldirako.

Bestalde, Espainiako Egonkortasunaren 2016-2019 (EP 2016-19) Programaren azken eguneratzean, ez da aurreikusten Gizarte Segurantzak aurrekontu aldetiko oreka berreskuratuko duenik

---

<sup>21</sup> Inbertsio-irizpideen arabera, Gizarte Segurantzako Erreserba Funtzaren balio nominalaren % 55era arte Alemania, Frantzia eta Herbehereetako zor publikoan inbertitua egon daiteke. Gainera, 2015ean unibertso inbertitzailea Kreditu Ofizialeko Institutuak igorritako aktiboetara hedatzen da.

proiektatutako epealdian. Horrela, 2015eko ekitaldia barne produktu gordinaren % 1,26ko defizit batekin itxi ostean, % 0,6an finkatutako helburua bikoiztuz, 2016. urteari begira defizitaren helburua barne produktu gordinaren % 1,1ean finkatzen da, % 0,9an 2017rako, % 0,8an 2018rako eta % 0,7an 2019rako.

Horri dagokionez, AIREF agintaritzak irizten dionez, “ez dirudi EP 2016-19 programan Gizarte Segurantzako Funtsetarako aurreikusitako bidea egingo denik epealdi osoan, eta ziurtzat jo daiteke 2016an proposatutako defizita ez dela iritsiko (BPGaren % 1,1)”<sup>22</sup>.

Gizarte Segurantzako kontuetako egoera eskasaren ondorioz, pentsioetarako finantzaketa-iturri berriei buruzko eztabaida hauspotzen ari da. Horrela, hainbat aukera planteatzen dira; esate baterako, haiek ordaindu ahal izateko zerga espezifiko “solidario” bat sortzea edo alarguntza eta zurtasun pentsioak zerga bidez finantzatzea.

### **3. NAZIOARTEKO ESPERIENTZIAK**

Gizarte-aurreikuspen osagarriaren garrantzia edo garrantzirik eza sistema publikoaren edo lehen habearen estalduraren garrantziaren arabera izango da, hau da, banaketa-sistema publikoaren ordezkapen-tasaren arabera, 2.3. atalean adierazi den moduan.

Tasa hori erretiroa hartutako pertsonen diru-sarreretan galera adierazgarria ekiditen duen maila batera iristen ez bada, bigarren eta hirugarren habeak beharrezkoagoak izango dira.

Lehen habearen estaldura-mailaren azterketa eta epe ertain eta luzera horri dagokionez dauden iguripenak ikusita, gizarte-aurreikuspen osagarria gehiago garatzeko formulak arakatzea komeni da.

Pentsioen Liburu Zuriak (European Commission, 2012) Europar Batasuneko estatu kideei bi gomendio egiten dizkie, funtsean: 1) erretiroa hartzeko adina egokitzea lan-bizitzaren denbora eta erretiroaren denbora orekatuz 2) erretirorako aurrezki-plan pribatu osagarrien garapena bultzatzea.

---

<sup>22</sup> Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentea (AIREF). 2016-2019 Egonkortasun Programaren Eguneratzeari buruzko txostenak, 2016ko maiatza.

Krisia latza izan da, batez ere herrialde «periferikoetako» finantza publikoetan, non erreforma- eta laguntza-egutegiak oso zehatzak izan baitira; horien eraginez, lehenengo alderdiari eskaini zaio arreta handiagoa.

### **Derrigorrezko atxikipena**

ELGA erakundearen arabera<sup>23</sup>, aurreikuspen-plan osagarriak bultzatzeko aplika daitezkeen politika aldetiko aukera ezberdinak alderatuz ondorioztatzen denez, derrigorrezko atxikipena da estaldura-tasa handiak eta modu homogeneoan banatuak lortzeko biderik eraginkorrena, pentsioen sistema osagarrietarako pizgarri publikoen banaketa ekitatiboagoa ere bermatuz.

Pentsio pribatuak boluntarioak diren herrialdeetan, lan egin dezaketen biztanleen % 13 eta % 50 artean kokatzen da estaldura-tasa; aldiz, nahitaezko sistemen kasuan, sarketa-tasa % 70 ingurukoa edo hortik gorakoa da. Baina partaidetza handi batek ez du ziurtatzen plan pribatuetatik datozen diru-sarrerak nahikoak izatea erretiroan, ekarpen handiekin eta errentagarritasun onekin lotuta egin behar dena.

Haatik, derrigorrezko atxikipena enplegura mugatzen da ekonomia formalean; izan ere, oso zaila da ezkutuko ekonomian dauden langileak eta egoera ez-aktiboan dauden pertsonak barnean hartzea. Hori dela eta, politika hori eraginkorragoa da diru-sarreraren maila handiagoa den ELGA barneko herrialdeetan. Horrela, Australian derrigortasuna dago eta Herbehereetan eta Suedian erdi-derrigortasuna dago, laneko, industriako eta nazio mailako hitzarmenez, hurrenez hurren.

Pentsioetako plan pribatuen derrigorrezko harpidetzak baditu bestelako zenbait eragozpen. Esate baterako, ekarpen-tasa zehatz bat ezartzeak berekin ekar dezake langileak gehiago zordundu behar izatea edo beharrezkoak diren beste gastu batzuetatik funtsak ateratzea; adibidez, seme-alaben heziketatik, etxebizitzako inbertsioetik edo norberaren enpresan egiten den inbertsioetik. Gainera, politikoki erreforma zaila da, eta Espainian Konstituzioaren aurkakoa da.

---

<sup>23</sup> «Coverage of Private Pension Systems: Evidence and Policy Options», hemen argitaratua: *OECD Pensions Outlook 2012*, OECD

## Atxikipen automatikoa

Derrigorrezko atxikipenaren alternatiba bat atxikipen automatikoa da, hots, pertsonak pentsio-plan pribatuetan modu automatikoan atxikitzea baina hartatik baja emateko aukerarekin. Politika hori inertzia edo zabarkeriaren moduko portaerazko ezaugarrietan oinarritzen da. Italian eta Zeelanda Berria sartu zen 2007an eskala nazionalean. Italiaren kasuan, lan egiteko adinean zen biztanleria kontuan hartuz, estaldura-tasak % 8,5etik % 11,9ra gora egin bazuen ere lehen urtean eta 2010ean %13,3ra iritsi zen arren, erreformaren emaitzak apalak dira, hala alderaketa eginez nola hasierako iguripenak kontuan hartuz. Dena den, hori kasu berezi bat da; izan ere, “erretiroko pagen” eraldaketa bat zen eta, horrenbestez, ez zen aparteko interesik eta hobekuntzarik izan gizarte-eragileentzat”.

Aitzitik, Zeelanda Berria borondatezko sistemen artean estaldura-tasa handienetara iriteanagatik nabarmentzen da, lan egiteko adinean zen biztanleriaren % 55eko batekin; izan ere, auto-atxikipenarekin (langile berriei soilik aplikatzen zaiena eta dagoeneko landunak direnak borondatez balia dezaketena), subsidio publikoekin eta gobernuaren eta enpresariaren ekarpen baliokideekin batera, badira bestelako diru-laguntza erakargarri zenbait, hasierako ordainketa bakarrekoak, sistemara atxikitzeko. Auto-bazterkeriaren aukera, beheranzko joerari jarraituz, % 18an kokatzen zen 2010. urtearen erdialdera.

Erresuma Batuak atxikipen automatikoa barneratu zuen, maila nazionalean, pentsio-plan pribatu batekin estalita ez zeuden langile guztientzat 2012ko urrian. Urte hartan bertan, Txilek kategoria fiskal jakin batzuetako autonomoentzako aurrezki-sistema pribaturako auto-atxikipena txertatu zuen. Ekarpene horiek derrigorrezkoak izango dira 2015etik aurrera.

Estatu Batuetan, 2006an, Protection Act Pentsioa onartu zen, enpresei ahalbidetzeko bertako langileak pentsio-planetara modu automatikoan atxikitzea. Haatik, plan pribatuen estalduraren ratio osoa (prestazio zehaztuko planak barne) 2006ko % 44tik 2012ko % 46ra areagotu zen soilik.

## **Pizgarri finantzario-fiskalak**

Estaldura-maila igotzeko beste aukera bat finantza arloko pizgarrien hornidura da. Horien artean, pizgarri fiskalek etekin gutxiago dakarkie sarrera apalak edo ertainak dituzten etxeei; hain zuzen, estaldura aldetiko defizit gehien metatzen dutenei. Zenbait herrialdek, esate baterako, Txekiar Errepublikak, Alemaniak, Mexikok eta aipatutako Zeelanda Berriak subsidio finkoak ordaintzen dituzte pentsio-plan pribatuengatik diru-sarrera baxuko kolektiboen ekarpen gehiago erakartzeko aldera.

2001ean, Alemanian, Riester izeneko pentsioak sartu ziren. Bertan, subsidio publiko linealak edo afiliatuei emandako desgrabazio fiskalak dagokien ekarpen-tasaren baitan (ekarpenaren % 4ra bideratua) eta seme-alaba kopuruaren baitan daude –gizarte segurantzako sisteman barneratuta dagoen eta arlo fiskalean subjektu pasiboa den edozein pertsona da afiliatua–. Pentsio horiekin estaldura areagotu egin da. Horrela, 16 milioi baino gehiago daude atxikita; bereziki, sarrera baxuko langileen eta familia ugarien artean.

Australian, 2003tik elkarren arteko ekarpenaren pentsioen eskemak Gobernuaren aldetiko ekarpen baliokideak barneratzen ditu diru-sarrera apaleko hartzaileentzat, beren pentsio-planera ekarpen gehigarriak egiten dituztenak. Ez dago subsidio finkorik. Ekarpen baliokide hori egonagatik ere, diru-sarrera baxuko pertsonen kasuan estaldura-tasa oraindik apalagoa da beste kolektibo batzuekin alderatuz gero.

Finantza arloko pizgarrien eragina nabarmena da estaldura-tasan eta ekarpenean eta, zehazki, artikuluan adierazten den moduan, diru-sarrera baxuko pertsonen kasuan. Alemaniako esperientziak iradokitzen duenez, subsidio linealek eragin positiboa dute diru-sarrera baxuko pertsonen estaldura-tasan. Bestalde, Australiako kasuak erakusten duenez, ekarpen baliokideek ekarpen gehiago ekartzen dituzte, baina ez dira egiaz eraginkorrak diru-sarrera baxuko taldeen estaldura-tasa areagotzeari dagokionez. Zeelanda Berriak, subsidioak (linealak) eta ekarpen baliokideak konbinatuz, lortzen ditu estaldura-tasa handienak diru-sarrera baxuko langileen kolektiboetan beste kolektibo batzuekin alderatuz.

Ildo horretatik, erretirorako pizgarri fiskalen eraginkortasunean, aurrezteko zailtasun gehiago dituzten pertsoneri bideratuta, ari da orobat lanean ELGA Antolakundearen eta Europako Batzordearen baterako batzorde bat. Bestalde, ELGA antolakundeak laguntza ematen die herrialdeei beren pentsio-sistema osagarriak arrazionalizatu eta eraginkorrago bilakatzeko.

Amaitzeko, estaldura hobetzeko beste zenbait aukera aipatu behar dira, esate baterako, finantza arloko prestakuntza, eta pentsio-plan pribatuekin lotutako sarbidea eta erabakiak ahalbidetu eta sinplifikatzea.

Edozein modutan, finantza arloko prestakuntzak, oro har, ez du aparteko arrakastarik izan, eta enpresaren esparruan aholkularitza eskaintzera mugatu da eta, beste alde batetik, hezkuntza-sisteman, azken ikasketa-urtean.

Haatik, aurrerapen handiak izan dira sarbidearen eta erabakien sinplifikazioan, “portaeraren ekonomiaren” esparruan. Atxikipen automatikoa bera adibide ona da. Horri dagokionez atxikipenarekin, ekarpen-mailarekin, inbertsioaren profilarekin edota pentsioaren erakundearekin (zenbaitetan publikoa) lotutako erabaki egokiak hartzea da kontua, inolako ahaleginik egin beharrik gabe eta, are, erabaki aktiborik hartu gabe.

#### **4. DIAGNOSIAREN ONDORIO NAGUSIAK**

- Datozen hamarkadetan aldaketa handiak izango dira biztanleriaren tamainan eta osaeran Europar Batasuneko Estatu kide guztietan, eta baita Euskadin ere. Egoera hipotetiko guztiek adierazten dutenez, zahartasuna bizkortu eta areagotu egingo da, sekula aldi berean gertatu ez diren bi fenomenoren ondorioz: jaiotzean bizi-itxaropena luzatzea eta baita 65 urterekin ere hala gizonen kasuan nola emakumeen kasuan, eta gazteen belaunaldiak murriztea jaiotza-tasaren murrizketak eraginda.
- EAEn bizi den biztanleria modu iraunkorrean jaitsiko dela aurreikusten da 2026an mende hasierakoaren antzeko zenbakietara iritsi arte.
- Euskadin desoreka demografiko indartsu bat gertatuko da, Espainiako Estatu osorako aurreikusitakoa baino are bortitzagoa izatea aurreikusten delarik. 2026an 65 urterik gorako

biztanleria % 26,6 izango dela kalkulatzeko eta portzentaje hori % 37,4koa izan daiteke 2050ean, 1995ean % 15koa zenean.

- Laneko adinean den biztanleriaren kasuan, % 12 jaitsiko da 2013. urtearekin alderatuz. Bestalde, 65 urtetik gorako biztanleria portzentajeazko sei puntu igoko da 2013. urtearekin alderatuz. Horren guztiorren ondorioz, erabateko mendekotasunaren tasa (potenzialki ez-aktiboak, 15-64 urte bitarteko biztanleriaren barruan) 13 puntu baino gehiago igoko da, eta 2026an % 64,9koa izango da. 65 urtetik gorako mendekotasun-tasa 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko potentzialki aktiboak diren 3,3 pertsona izatetik 2026an 2,3 pertsona izatera pasako da. 2050erako aurreikuspenak ez dira oso oparoak, izan ere, panorama are gehiago iluntzen da, zahartasun-prozesua Euskadin indartsuagoa izango baita Espainian eta Europar Batasunean baino.
- Lan egiteko adinean den biztanleria urriagoa izango da hurrengo hamarkadetan, izan ere, erretiroak igo egingo dira eta egoera hori ez da konpentsatuko lan-merkatuan sartzen diren gazteen kohortekin. Hala eta guztiz ere, jarduera-tasa % 79ra igoko da 2050ean, pentsio-sistemen erreformak eraginda, aurretiazko erretiroak ahuldu egingo baititu, eta emakume gazteen belaunaldiak lan-merkatura gehiago hurbilduko direlako.
- Mendekotasun ekonomikoaren tasa, 65 urtetik gorako biztanleriaren eta guztizko enpleguaren arteko ratio modura, portzentajeazko 46 puntu haziko da, 2050ean % 97ra iritsi arte, hots, langile batek pentsiodun bat finantzatzeko du ia.
- Pentsioen ikuspegitik, bizi-luzetasunak, berez ona izaki, hainbat eskakizun dakartza hartatik eratortzen den bitza ez-aktiboko "aparteko" urteen finantzaketarekin lotuta. Gainera, pentsioen finantzaketa banaketa-sisteman oinarritzen denez, lan egiteko adinean den biztanleriaren garrantziaren uzkurdurak erretiroa hartutako biztanleriarekiko, eragin nabaria du haren bideragarritasun finantzarioari begira. Horrez gain, zahartasunak, pentsioetan gastu publikoa areagotzeko presio handiak ekartzeaz gain, gizarte eta osasun arloko gastua ere modu adierazgarrian areagotzea ekarriko du. Horrela, zailtasunak izango dira finantza publiko sendo eta iraunkorrak mantendu ahal izateko.

- Familiaburua erretiroa hartzeko adinera iristean, etxeetako aberastasun garbiaren erdiko balioa 250.000 euro ingurukoa da. Ondare horretatik, ia % 30 etxebizitza nagusiaz aparteko aktiboak dira. Finantza-aktiboek balio osoaren % 11 inguru islatzen dute.

Familiaburuak 65 urtetik gora dituenean, etxe guztien % 32,6aren kasuan, erabilgarri den errenta % 40 murrizten da aurretiko bizi-aroarekin alderatuz.

Maila makro-ekonomikoan, EAEko familiako aurrezpen gordina familiaren errenta gordinaren % 12,8koa zen 2010ean, 3,5 puntu jaitsi direlarik azken 10 urteetan. Estatuan erreparaturik, portzentaje hori areagotu egin da, 2010ean familiaren errenta gordina % 14,12ra iritsi arte.

Horrenbestez, ahultasun-egoera baten aurrean gaude argi eta garbi, ez da behar beste aurrezten, eta erretiroa hartzeko unean berehalako likidezia sorrarazten duten finantza-aktibo gutxi dago erabilgarri.

- Pentsioen Liburu Zuriak (European Commission, 2012) Europar Batasuneko Estatu kideei bi gomendio luzatzen dizkie, funtsean: 1) erretiroa hartzeko adina egokitzea lan-bizitzaren denbora eta erretiroaren denbora orekatuz 2) erretirorako aurrezki-plan pribatu osagarrien garapena bultzatzea. Krisia latza izan da, batez ere herrialde «periferikoetako» finantza publikoetan, non erreforma- eta laguntza-egutegiak oso zehatzak izan baitira; horien eraginez, lehenengo alderdiari eskaini zaio arreta handiagoa.
- Gizarte Segurantzaren alorreko azken arau-aldaketaren arabera (pentsioen errebalorizazioa, iraunkortasun-faktorea) hazkunde ekonomikoak eta enpleguak zuzeneko eragina izango dute pensioen eguneraketan, eta, halaber, badirudi argi uzten duela Gizarte Segurantzak jada ez duela barne hartuko bizi-itxaropenaren hazkundera; horrek pensio txikiagoak ekarriko ditu berekin. Hori areagotu egingo da Erreserba Funtza murriztearekin bat, egungo pensioei aurre egin ahal izateko erabiltzen baita.
- Espainian ordezkapen-tasa, gaur egun ere, oraindik nahiko handia da. Dena den, pixkanaka murriztuz joango da pensioetako erreformaren ondorioz. Euskadin egoera antzekoa da, are hobea. Batez besteko pensioa handiagoa bada ere, batez besteko soldata ere handiagoa da, eta bilakaera demografikoari so antzeko arazoak daude.



Banaketa-sistema publikoko ordezkapen-tasak asko murriztuko dira, hainbeste ezen erretiro-arotan diren pertsonen bizi-kalitatea modu adierazgarrian galduko baita edo, are, txirotasun-mailaren azpira igaro daitezke aurrezki gehigarririk ez badute.

Horrenbestez, egun eskuragarri dauden datuekin, eta epe ertain eta luzera, pentsio publiko eta osagarriaren arteko ordezkapen-tasa egungo parametroen inguruan mantentzeko oinarritzko helburua izanik, ezinbestekoa da borondatezko Aurreikuspen Osagarria bultzatzeko mekanismoak finkatzea.

- Berezko arauzko esparru bat izateak, gizarte-aurreikuspenean eskumen erabatekoa izanik, Euskadin tresna horren garapena Estatuan baino handiagoa izatea ekarri du. Pentsio osagarrietan ondarea EAEko BPGaren % 35 da gutxi gorabehera; Espainiako Estatuan, aldiz, %9koa da. Haatik, Euskadin Gizarte-aurreikuspen osagarrian desoreka handiak nabari dira errenta-mailaren, lurraldearen eta sektore ekonomikoen arabera, Gipuzkoaren salbuespenarekin.
- Aurreikuspen-eredu indibidualaren ezaugarriak aztertuta ikus daitekeenez, sistemara berandu sartzearekin lotutako (lan-merkatura sartzeko adinetik oso aurrera) hainbat alderdi daude hobetzeko, ekarpenen askitasun, eraginkortasun eta jarraikortasunarekin nahiz inbertsio-patroien egokitasunarekin lotuta. Haatik, oso malgua denez, beharizan indibidualei erantzuteko gai den sistema bat da.
- Enplegu-sistemek, aldiz, abantaila ukaezinak dakartzate gizarte-aurreikuspena errenta ertain eta errenta ertain-baxuko segmentuetara hedatzeari dagokionez: sistema horiek ekarpenen hasiera goiztiarra eta jarraikortasuna bermatzen dute; momentuz, sistema horiek dira errenta erako prestazioak masiboki eta gehien ematen dituztenak, eta horiek dira batez besteko biztanleriaren beharrezanetara hobeto egokitzen direnak eta, batez ere, egokituko direnak. Horrez gain, gizarte-erabilerari, askitasunari, eraginkortasunari eta kostu fiskalari begira balantze ona eskaintzen dute.
- Euskadin, enplegu-sistemak (zeintzuen balantze-zifra indibidualena baino handiagoa baita, nahiz eta bazkide gutxiago izan argi eta garbi) enpresa handiaren, finantza-sistemaren edo sektore publikoaren lan-segmentu oso espezifiko batzuetan metatzen dira eta, horrenbestez, Euskadiko ekonomiaren ekoizpen-ehunduraren orokortasunetik urrun.

- Gainera, sektore ekonomiko horietan ordainsaria nahiko ona da. Beraz, oso litekeena da kolektibo horiek sistema indibidualarekin ere arlo fiskalean hobetu egingo den aurrezteko ahalmena izatea. Horrela, enpleguko BGAEen eta indibidualen arteko gainjartze bat gertatzen da, zehazki, nahiko handiak diren soldata-mailen kasuan.
- Gizarte-aurreikuspen osagarria orokorrean ezarri ahal izateko, negoziazio kolektibo eraginkorra eta osoa beharrezkoa da, bultzada politiko batekin batera. Haatik, negoziazio kolektiboak soldatarekin eta lanaldiarekin lotutako alderdiei erreparatzen die nagusiki eta, beste alde batetik, aurreikuspen osagarriaren konplexutasunak eraginda, zaila da kontu hori lehentasunezko gai modura jorratzea sindikatu eta enpresarien aldetik. Hori dela eta, era berean, ezinbestekoa da Gizarte-aurreikuspen osagarriak enpresan adostu edo garatzeko esparru alternatiboen inguruan gogoeta egitea.
- EAEk, Estatuak pentsio arloan erabakitako aldaketak saihestu ezin baditu ere, baditu eskumenak prestazio osagarriaren alorrean. Hasteko, berezko araubidea du, nahikoa berriki aldarrikatu den Lege bat indarrean delarik, eta hura garatzeko Erregelamendu bat du. Halaber, gertaeren eta demografiaren bilakaerari buruzko diagnosi bat du eta, azkenik gizarte-aurreikuspen osagarria bultzatzea ahalbidetu dezaketen eskumen fiskalak ditu.
- Aitortu behar da BGAEen garapenean erdietsitako lorpen handiak pentsaezinak liratekeela egun dagoen tratamendu fiskal pizgarria egon ezean.
- Bada garrantzitsua den alderdi bat, hots, sektore publikoak pentsio-plan pribatuak baitaratzea, aurrezteko beste modu batzuen aurrean, arlo fiskalean bultzatu behar ote duen ala ez, eta sistema pribatuetara baliabide publikoak bideratzearen zentzua bera erabakitzearekin lotutakoa, pentsio publikoetako osagarrietara bideratu beharrean.

Horrekin lotuta gogorarazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoak Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoa arautzeko eskumenik ez badu ere, Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen arabera pentsioen osagarrien (kotizaziopekoak eta ez kotizaziopekoak) ordainketak egiten dituela. Halaber, Foru Aldundiek pentsio ez kontribuziozkoen ordainketei egiten diete aurre. Horri guztiori lehen aipatutako gastu fiskalak gaineratuz gero, gizarte-segurtasunean gastu publiko autonomikoaren ahalegina oso handia da, pentsioen sistema publikoko baliabideena.

- Erronka nagusia Gizarte-aurreikuspen osagarria orokortzea eta hura herritar guztientzat modu ekitatiboan gauzatzea da. Frogatuta geratu da orokortze hori ez dela zilegi sistema indibidualen oinarriaren gainean. Orokortzea enplegu-sistemekin soilik da zilegi. Baina, aldi berean, enplegu-sistemak ezin dira derrigorrez txertatu, izan ere, Konstituzioan erreforma egiten ez bada, ez da bideragarria enpresetan sistema osagarriak izatea derrigortzea.
- Ezinbestekoa da inplikaturako eragile ekonomikoen aldetik beste aukera batzuk aztertzea oztopoak gainditu ahal izateko, estaldura-maila handiak eta homogeenak lortzeko xedez, esate baterako, ukatzeko aukera barneratzen duen atxikipen automatikoa aplikatuz, finantza arloko prestakuntza-programak garatuz nahiz pentsio-plan pribatuekin lotutako sarbidea eta erabakiak ahalbidetu eta sinplifikatuz.